



Mohamed Fadel eibartHARTUa



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



+ osasun gida

Dentistak

arat
Hortz Klinikak

943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria, 4 - 1º esk

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

bista eder
clinica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

EIBAR HORTZ KLINIKAK
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOAK

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOAK

KIRURGIA
ESTETIKOAK

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

Indibaterapia
Kirol lesioak
Drenaje linfatikoa

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

Ginekologia

Mª Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. esk. 943 20 28 57
94 444 95 34

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk. 943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa
Disfonia
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak
Berba arazoak
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Maijalen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Xabier Gorritxategi gure gogoan –

Pentsamentu libertarioa izanagatik, Xabierrek ez zuen oztoporik ikusi abertzaleen borrokarekin bat egiteko. Markinako baserri batera bizitzera joana, Ondarruko portuan elektrikari gisa jardun zuen lanean eta inguruko baserrietako esnea banatzen. ETako militantea 1977tik, poliziaie ihesi Iparraldera jo beharra izan zuen hurrengo urtean. 1980ko otsailaren 1ean erakundeko komando batek Goardia Zibilaren konboi bati eraso zion Isparter inguruan eta sei goardia hil. Ekintza gauzatzen zuten bi-

tartean, granada baten ezteandak Goio Olabarria durangarraren bizitza eraman zuen. Komunikabideetan esan zuten beste komandokide bat zauritua suertatu omen zela. Hurrengo egunean konfirmatu izan genuen, tamalez, arrazoia zutela: jasotako zaurien larritasuna zela-eta, 26 urte zituen Xabierren kideek ezin izan baitzuten salbatu eta bere hilotza Ermuko hilerriaren atean utzi zuten ikurriña batean bilduta.

Eibarko Ezker Abertzalea

– OKERRAK ZUZENTZEN –

Aurreko alean Amaña es la Caña elkarteko emaila txarto jarri genuen. Eurekin harremanetan jarri nahi baduzue email zuzena hauxe da: infoamanaeslacana@gmail.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAITTETSU IBILI.- Maiteminduta ibili. *"Ha neskatilla politta ikusi neban ordutik, maittetsu nenbillen".*

MAIXUKERIXA.- Gaztelera *'pedantería'*. *"Maixokerixia badarabil behintzat bedorrek".*

astean esanak

"Materiala jaisten joan dira enpresak, ikusgarritasuna lortu nahi dutelako, haien hitzetan. Horrek ekarri du kolpe handiagoa dugun pilotariok murriztuta geratu garela, eta tantoa bukatzen artistak direnak ateratzen direla irabazten. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta nik eskatzen dudana da bakoitzak bere gustoko pilotak izatea saskian. Arazo handiena da material hori azkarregi gastatzen dela, graziarik gabe geratzen dela. Niri pilota motelak gustatzen zaizkit; arazoa da frontisean ibili eta lurtean geratzen badira"

(IKER IRIBARRIA, ASPEKO PILOTARIA)

"D melanogaster edo binagrearen euliaren feromonek ez diete bere espeziekoek bakarrik eragiten, gizakiok ere detektatzeko gai garelako; hori bai, sexualki erakarri beharrean, garratz gustuarekin lagako gaituzte. Ikerketa batek erakutsi du ardo kopa batean euli emea sartu bada, horrek garratzu egiten duela bertako edukia. Proba egin zutenen gustuko ardoarekin egin zen test-a: kopa edatera eman zitzairen aurretik eulirik sartu gabe, euli arra sartuta eta emea sartuta. Azken kasuan bakarrik garratzen zen ardoa, nahiz eta sartu eta atera berehala. Feromona horiek hain indartsuak dira kopa garbituta ere igartzen dela"

(PAUL BECHER, UPSALA UNIBERTSITATEA)

"Kasu batzuetan hildakoarekiko zekenkeria heriotzaren hurrengo segunduan hasten da eta oso luze jo daiteke, bizirik zegoenean ere zikoizkeria arrunta baitzen. Txillardegiren kasua eredu argia da. Donostiako herritar batzuek orain dela gutxi eginiko omenaldia zela-eta, Eneko Goia alkatearen hitz laburrek harritu ninduten, ez hainbeste erakusten zuten zuhurkeriagatik, baizik eta azaleratzen zuten ezjakintasun entziklopedikoagatik: ez dut Txillardegi euskalduntasunaren santu izendatzeko asmorik, ez nion bere azken eleberriari kritika goxorik egin, baina deabrutzat hartzea absurdoa da guztiz"

(RIKARDO ARREGI, IDAZLEA)



ASIER EZENARRO

Urrezko danborra

Gastronomia eta kirola bihurtu dira euskaldunon ezaugarririk garrantzitsuenak? Espainiako aktore famatuena elkarriketetan, gure lurraldeari buruz galdetzen dietenean, beti erantzuten dute "¡Hombre! Donostia, el mejor lugar para comer" eta antzerakoak. Badaude ere hemengo kazetari eta profesionalak Espainian lan egiten dutenak eta hitz bat euskeraz ez diedala inoiz entzun; baina, hori bai, hemengo gastronomia eta hemengo sukaldariak (jainko berriak) beti goraiatzen dabiltzanak. Enbaxadore kultural pantagruelikoak gureak! Erreparatu dezagun, adibidez, nortzuk izan diren gehienetan Donostiako urrezko danborra jasotzen. Frankismoaren garaian Juan Ignacio Luca de Tena, antzerki egilea eta ABCko zuzendaria izandakoari, edo Marcelino Oreja UCDDko ministroari ematen zieten saria, hau da, Frankoren erregimeneko jendeari; eta ondoren, "demokrazian" sukaldari ospetsuak eta kirolari asko agertu dira sarituen artean. Aurten ere, Richard Oribe kirolari paralinpikoari eman diote. Kirola eta gastronomia munduko gauza garrantzitsuenak izango balira bezala. Zergatik ez zieten eman sari hori Xabier Zubiri filosofiari edo Alvarez Enparantza "Txillardegia" idazleari? Edo Antonio Beristain jesuitari bere garaian? Eta orain Xavier Peñalver antropologo donostiarrari, Mariano Ferrer kazetariari edo Jose Luis Orella historialariari? Ez dituzte azken hauek merezimendu gehiago egin lehen aipatutako sukaldari eta kirolariak baino? Eta zer esan Donostia 2016 "Hiri kulturala"ri buruz? Donostia hiri turistikoa bihurtzea nahi al du? Onartzen du gu gure izaera Espainiatik definitzea? Hainbestearino daukagu kolonizatuta geure burua?

Ikasenpresa iruditan jaso dogu etakitto.eus orrixan

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ikaste-txeetan Lanbide Heziketako ikasliak garatutako 317 ikasenpresa proiektu erakutsi zittuen atzo Eibarren, VII. Ikasenpresa azokan. Untzagan eta Txaltxa Zelaixan bildu zittuen 78 ikastetxetako proiektuak eta azokaren harira 1.700 gaztetik gora alkartu ziran gurian. ...eta kitto! astekarixak jarraipen berezixa egin zetsan ekitaldixari, goiz osuan hartutako irudixekin ARGAZKI BILDUMA eta BIDEA prestatu eta www.etakitto.eus orrixan zuekin partekatzeke.



bajauko dittue Musika Eskolako tasak datorren ikasturtian, plenuan hala erabagi eta gero: 4-7 urteko ikasliak 249,97 euro pagauko dittue; 7 urtetik gorakuak, 374, 95 euro; instrumenturen bat ikasi nahi dabenak, 421,07 euro; lengoia musikala eta instrumentua batera nahi dabenak, 668,43 euro; eta bi instrumentu ikasi nahi dabenak, 990,38 euro.

Gasteizen bizi diran eibartarren San Blas opillak

Eibar-Gasteiz Elkartearen ekimenez, aurten San Blas eguna modu berezixan ospatuko dabe Gasteizen. Han bizi diran Pili Izaga eta Alberto Gómez eibartarren laguntzarekin, eta Ego Ibarra baztordiak jasota dittuan errezerteri jarraituta,



San Blas opillak egiten ibilli ziran hiriburuan dagan "Mamia" okindegixan. Esperientzia horrekin edarto gozatziaz gain, Gasteizen San Blas opillak erosteko aukeria izango dabe. Aitor Buendia kazetari eta gastronomuaren "La Ruta Slow" irratseaiuan esperientziaren barri emon eben aurreko astian eta, horrez gain, Eibar-Gasteiz Elkartearen blogean bildu dittuen argazkixetan, San Blas opillak nola egin zittuen ikusi zeinkie.

Informaziñua emoteko gunia zabaldu dabe Alfako bihargiñak Untzagan

Eguaztenian zabaldu eben Untzagan "Infogunea" Alfa Taldeko bihargiñak, "jendiari informaziñua emon eta herrixan gure borrokaren barri izan deixen. Gaur 68. greba eguna bete dabe eta, bi hillebete ondoren, "enpresak emon daben azken pausua epaitegixan 131 lagun kaleratzeko espedientia aurkeztia" izan dala ekarri dabe gogora. Gauzak holan, "Infogunea" astelehen, eguazten eta barixakuetan zabalduko dabe, 09:30etatik 12:30etara eta 17:00etatik 19:30etara. Horrekin batera konzentraziñuak egingo dittue, goizetik (12:00etatik 12:30etara) eta arratsalde (19:00etatik 19:30etara).





Sanblasak bedeinkatzeko mezak

Urteroko ohiturari jarraituta, aurtan be opillak bedeinkatzeko aukeria izango da bixar, herriko elizetan, San Blas eguna dala eta asmo horrekin ospatuko dituen meza berezixetan. Urkiko elizan izango da lehena, 10:30xetan. Ondoren, 11:00etan, Azittaingo elizan, Karmengo Amaren elizan, San Agustinen, San Andresen eta San Pio X.a elizan bedeinkatuko ditue sanblasak eta 12:00xetan, barriz, Amañako elizan.



Depor tabernia zabaldu dabe atzera be

Luzaruan itxitta egon dan Depor tabernak atzera be atiak zabaldu dittu. Astelehenian klubeko ordezkari eta bazkiden partehartzia izan eban ekitaldixarekin inaugurau eban eta aurrerantzian astelehenetik barixakura egunero zabalduko dabe, arratsalde, 17:30xetatik 21:30xetara. Bestiak beste pintxuak eta kazuelitak eskinduko ditue, baita kafia zein bestelako edarixak be. Tabernaren inauguraziñuak Eibarko Klub Deportibuaren 94. urtemugaren bezperarekin bat egin eban, hain zuzen be Klub Deportibua 1924ko urtarillaren 30ian sortu zan-eta. Gaur egun 2.500 bazkide baiño gehixago dakaz eta egitten daben biharra kirol eta kultura arloko 13 batzordetan dago banatuta.

autuan

JABETZE ESKOLAKO IKASTARUAK

Emakumiendako Jabetze Eskolak ikastaro barrixak antolatu dittu: "Andra gaziendako autodefentsa", "Iturgintza eta elektrizidadia", "Gure egixak josten: emakumien memorixa historikua eraikiz", "Bizitzarako psikologia praktikua" eta "Soiñu-ekipamenduak erabiltzeko oiñarrizko ikastara". Izena emoteko epia atzo hasi eta martxuaren 9ra arte egongo da zabalik. Matrikulia egitteko eta informaziño gehixago eskatzeko Andretxeara (Zezenbide, 9) edota Pegorara jua leike.

INGURUMEN SAILLARI SARIXA

Udalaren Ingurumen sailleri sarixa emon detse, iazko azarorako antolatu eban "Konprometitu gaitezen Eibarrek" kanpaiñarengaittik. 2017 Hondakiñen Prebentziñorako Europako Astearen harira, Hiri Hondakiñen Koordinaziño Organuak (OCRU) antolatu eban Euskadi maillako lehiaketan irabazi dau sarixa, administraziño publikuen kategorixan.



La Salle
Eibar

Urtarrilaren 29tik
otsailaren 9ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA eta
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA



La Salle Isasi eta
Azitain Ikastetxeetan

MATRIKULA ZABALIK
2018-2019 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133 / 943 121 698

www.lasalleeibar.com



herriko kaleei begirada



MATSARIA

egilea:
 IDOIA ALVAREZ

Dibujo Eskolarekin elkarlanean



Santa eskian ...eta kitto!-rekin urtetzeko aukeria izango da domekan

Aurten be, ohitura zaharreri eusteko asmuarekin, ...eta kitto! Euskara Elkartekua santa eskian urtengo dira Santa Ageda bezperan, domekan. Goizeko 11:00etan ensaio txiki bat egingo dabe ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuartera) eta, ondoren, 12:00xetan ekingo detse kalejirari: Urkizuko iturrirax hasi, Bittor Sarasketatik Estaziño kalera igo, handik Ibar-kurutzera juan eta atzera be Urkizura bueltia egingo dabe, ...eta kitto!-ren lokalian txorizua eta txokolate berua hartzeko. Antolatzailliak euskera alkatetako lagunekin batera Santa Ageda koplak kantatzera animau nahi dittue herritarrak. Izan be ekitaldixa irekixa da, nahi dabenak izango dau parte hartzeko aukeria. Makilla eta, ahal dala, basarritar jantzitta edo basarritar-zapixarekin agertzia eskatu dabe.

Eibarko bi bikote aurrera mus txapelketan



Domekan jokatu zan X. Mus Txapelketako Eibarko kanporaketia, Hirurok tabernan, eta hurrengo faserako bi bikote sailkatu dira: Oihane Galdeano eta Jon Zubizarreta batek eta Javier Gutierrez eta Juan Antonio Gutierrez bestetik. Herrixetako kanporaketak jokatu ondoren, zazpi herrialdie-tako finalen txanda izango da, otsailaren 24an. Final nazionala, barriz, Uztaritzen (Lapurdi) jokatuko da, martxuaren 10ian. Informaziño guztia www.ehmus.eus helbidian dago.

Udal aurrekontuari kontrako bozka emongo detsa Bilduk

EH Bilduk 2018ko udal aurrekontuaren kontra bozkatuko dau, PSEri "ausardia falta" egotzita. Taldeko ordezkariak pentsa-tzen dabenez, emendakin edo zuzenketak eginda be, horrek ez dabe aldaketa sakonik eragingo aurrekontuaren zirriborroan, "eta Udal Gobernuak argi laga dau herrixaren premiñen araberako proiektuak ez direla lehentasuna euredako". PSE-EE eta EAJ-ren artian adostasuna lortzia "erreza" izan dala diñue, "eredu be-

ra dakelako". Udal Gobernuak aurreko barixakuan emon zetsan EH Bilduri jeltzaliekin lortutako akordixuaren barri eta, horrekin batera, "gaiñontzeko negoziaziñuak amaitutzat emon zittuen". Eguaztenian emondako prentsaurrekuaren esandakuaren arabera, "sozialistekin izan genduan azken alkarrizketan Udal Gobernuak proposamen bat egitteko konpromisua hartu eban, baiña propo-samen hori ez da aillegau".

Bilduk urtarrillian presentau zittuan bere emendakiñak, "herri-tarren premiñeri erantzuteko 40 proposamen", eta Udal Gobernuak eurekin adostasuna lortu ahal izateko pauso kualitatibua emon biharko ebalu adierazi eban: "Kokoteraiño gaioz apaletan ahaztuta geratzen diran proiektuekin, planak gauzatzen hasteko ordua da". Bilduko ordezkariaren berbetan, "proposamenak begi onez ikusten dittuela diñue, baiña garatzeko orduan trabak ipin-tzen dittue. Are gehixago, beraien burua sozialistatzat daken arren, euren agendan ez dabe proiektu sozialik nahi". Bilduk aurrekontuaren hainbat puntu kritikau zittuan eta, gauzak holan, aurrekontua bozkatzeko plenuan eurak kontrako botua emongo da-bela aurreratu eben agerraldixan.



Jeltzaliak eta sozialistak aurrekontuaren inguruan ados ipiñi dira

Aurreko asteko barixakuan udaletxian egindako agerraldixan, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdixen artian 2018rako udal aurrekontuaren inguruan adostasuna lortu dabela emon eben aditze-ra Josu Mendicute jeltzalien udal taldeko bozeramailliak. Siñatuko daberen akordixuaren arabera, herrixan ekonomixia suspertze-ra bideratutako proiektuetarako 1'3 millioi euro jasoko dittu aurrekontuak. Hitzarmenak "beste alderdixak onartzeko moduko proposamenak" biltzen dittuala pentsatzen dabela esan eben eta, horregaittik, beste alderdixak lehenbailehen bat egittia nahiko leukiela gainerratu eben, euren ekarpenak gehittu eta, behin danak ados ipiñitta, aurrekontua onartu ahal izateko: "Minimo honekin edozeiñek daka bat egittite aukeria. Guztiok daukagu zer esan Eibarren etorkizuna eraikitzeke eta Eibarrek mapan bere toxixa berreskuratzeke".

EAJ berezikik kritikua da gaur egungo udal gobernuaren "pasibitatearen eta dinamismo faltaren aurrian", eta hala azaldu eban Eduardo Zubiaurre Eibarko Uri Buru Batzarraren presidentiak: "Ez



Udal taldeko ordezkariak, Uri Buru Batzarreko kidiekin batera.

duabe inolako lidergorik erakutsi Eibar berpizteke. Ez gaioz aitzakixekin eta denporia alperrik galtzen ibiltzeke moduan, Udaletxe honetan ohitturia billakatu bada be. Udalaren zeregiña ez da dirua alperrik pillatzia". Talde bixen arteko akordixuak 43 puntu edo proposamen dakaz eta udal aurrekontuak zuzenian 995.500 eurotan gora egittia eragingo dau. Horrez gain, urtian zihar 323.000 euro gehittuko jakoz eta kuantifikatu bariko beste konpromiso batzuk be jaso dittue.

Eibar Business Market jardunaldixak egingo dira Teknikerren

Ekintzaille eta Inbersorien arteko topaketarako foroa antolatu dau Eibarko Udalak, Debegesa, Tekniker eta Ekinguneren laguntasunarekin. Eibar Business Market izeneko jardunaldixak datorren astian, eguenian eta barixakuan izango dira, Teknikerren egoitzan. Lehen egunerako prestatu daberen programia goizian (09:00ak aldera) hasi eta arratsaldeko 19:30xak aldera amaittuko da eta, bixen bittartian, hainbat hitzaldi, proiektu aurkezpen eta mahainguru egingo dira. Eta bigarren egunian, barriz, 09:30xetatik 13:30xetara izango dira hitzaldixak. Programa osua eta izena emoteke orrixa eibarbusinessmarket.com helbidian eskuragarri dagoz. Informaziño gehixagorako info@eibarbusinessmarket.eus helbidera idatzi leike.



Berbalagunak pozarren ibilli ziran pellak eta torrada egitten

Pella eta torrada zelan egitten diran ikasten jardun dabe aste honetan berbalagunak ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta, munduko sukaldaritzaren inguruko tailar-zikluaren barruan, Portaleko sukaldian egin dan egun biko taillarrian. Ikastarian parte hartzeza animau diranak, postre bixetarako errezetarekin batera, klasian egindakuak eruan zittuen etxera, gero jateko.



Jose M^a Ulacia Artero "Txema"

"Beti egongo zara gurekin; oso alaia egin diguzu bizitza.
MAITE ZAITUGU"

FAMILIAREN IZENEAN, **eskerrik beroena**
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.

IRTEERA MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN (OTSAILAK 4)
EGUERDIKO 12etan, SAN ANDRES ELIZAN.



GURE ESKU DAGO

Helburuak

Gure Esku Dago Euskal Herri mailako dinamika herritarra da, erabakitzearen eskubidearen alde lan egiten duen dinamika anitza eta parte-hartzailea. Tokian tokiko ekimenei aterkia eskaintzen die. Gure Esku Dago Eibar 2013. urtean sortu zen eta taldea osatzen duten kideak –gaur egun 12 inguru izango dira– asteartero biltzen dira Arrate Kulturalean, 19:00etan. Taldea guztiz irekia da, eta herriko gazteak ere parte hartzera animatu nahi dituzte. Debabarreneko beste herriein kolaborazio estua daukate.

Ekintza nagusiak

Eibarko taldeak Euskal Herri mailan antolatzen diren ekimen guztietan hartzen du parte (2014an egin zen giza-katea, mosaiko erraldoia Zurriolan, herri-galdeketa 2017ko maiatzaren 7an...), eta finantziazioa lortzeko hainbat jarduera egiten ditu: bigarren eskuko azoka, joste eguna, materiala saltzeko mahaiak, Tripontzia loteria...

Orain, ekainaren 10an egingo den giza-katearen antolaketan buru-belarri sartuta daude. 201 kilometro izango ditu giza-kateak. Donostiatik abiatuta, Bilbotik pasa eta Gasteizen amaituko da. Eibartik pasatuko da, eta ondorioz, Eibar herri hartzailea izango da. 2014an eibartarrak Bergarara joan ginen bezala, aurten Tolosaldeatik etorriko dira gure bailarara. Eibarren 2.000 pertsona inguru etortzea aurreikusten dute.

E-maila: gureeskudago.eibar@gmail.com

Facebook: [Gure Esku Dago Eibar](#)

Webgunea: gureeskudago.eus



Gure Esku Dago erabakitzearen alde lan egiten duen dinamika anitza eta parte-hartzailea da.

BIZIMINA

Helburuak

Bizimina plataforma 2012ko maiatzan sortu zuten Iratiren gurasoek, gaur egun 9 urte dituen alabari "Fibrosidiasia Osifikante Progresiva (FOP)" izeneko gaitxotasuna diagnostikatu ziotenean. Elkartearen helburua, jasotzen duten diru guztia gaixotasun ezezagun horren ikerketara bideratzea da.

Ekintza nagusiak

Elkartea sortu bezain laster ekintza desberdinak egiten hasi ziren: alde batetik plastizkozko tapa eta tapoiak batzeko edukiontzia jarri zituzten kalean, Eibarko Udalaren laguntzarekin. Dena dela, tapoi guztiak almagatzeko lokal gabe gelditu ziren eta jarduera bertan behera gelditu zen.

Dirua jasotzeko ekitaldi ugari egiten dituzte eta sarri ikusi ditugu paella solidarioak prestatzen (Sanjuanetan *Jaixak Herrixak* taldeak antolatuta herri bazkarian, Amaña edo Legarreko jaietan, euskararen egunean...). Horretaz gain, kamisetak, sudaderak eta era askotako rifak saltzen jarduten dute. Arrateko jaietako txosna edo Basque Culinary Center-en antolatu zuten gala benefikoa dira taldearen beste diru-iturri batzuk. Ingurukoek ematen dieten laguntza eskertzen dute, baina babes gehiagoren premia somatzen dute.

E-maila: bizimina@gmail.com

Facebook: [Bizimina Plataforma](#)

Webgunea: bizimina.weebly.com



FOP gaixotasunaren ikerketarako dirua lortzeko hainbat ekitaldi egiten dituzte Bizimina taldekoek.

Mohameden irribarrearen aurrean ez dago oztoporik

Jaiotzez espainiarra delako mantentzen ditu aitarren eta amaren abizenak. "Izen luzea osatzen da horrela. Zortzi abizenak euskaldunak izatearen baliokidea da", dio umoretsu **Mohamed Fadel Taleb Mohamed Hamadek**. MOHAMED lagunentzat. Euskaltegitik irten berri erantzun digu sahararrak, euskara hutsean, eta bere irribarrea itsaskorra da.

Poliomelitisa bost urterekin

Mohamed Aaiunen jaio zen 1967an, Sahara Espainiaren kolonia zenean (horrela izan zen 1975era arte), eta bost urterekin bizitza goitik behera aldatu zitzaion. "Poliomielitis birusak kutsatu ninduen eta Las Palmaseko San Juan de Dios ospitalera eraman ninduten tratamendua jasotzera". Ebakuntza ugari egin zioten Kanariar Uharteetan egin zituen 13 urteetan eta denbora horretan Lehen Hezkuntza egin zuen. "Eguraldi ederrarekin!", dio irribarrez.

Saharan etorkizunik ez

Lehen Hezkuntza amaitu eta gero, jaioterrira bueltatu zen, baina oso egoera txarra zegoen han. "Herrialde azpigaratua da eta hango gatazkak ez du laguntzen". Bere gaitzarekin han bizitzea oso zaila zela dio Mohamedek. "Saharan ez neukan etorkizunik". Orain ere ez. Anai-arrebak ditu han eta etsipenez ikusten du euren egoera. "Bi urtean behin joateko aukera daukat, baina ez nintzateke bizitzen geratuko".

Joskintza utzi eta Gaztela Mantxara

Joskintza diploma atera eta gizonezko trajeak, jakak, eta prakak josten ibili zen hainbat urtean Aaiunen. "Bizitzeko adina ematen zidan, baina nire gaixotasunaren ondorioz ezin nintzen ondo moldatu eta utzi egin nuen". Berak beste gauza bat nahi zuen eta Gaztela Mantxako lagun baten deia jarraituz Valdepeñasen amaitu zuen. Horretarako nazionalitate espainiarra berreskuratu behar izan zuen, "baina niretzat erraza izan zen, Espainian jaiotzeaz gain Espainian ikasi nuelako".

Euskararekin maitemindu zen SAHARARRA

Beste lagun batzuen aholkua jarraituz Euskal Herrira etorri zen 2013an, Irurara, eta han bapatean maitemindu zen. "Oso jende jatorra aurkitu nuen eta euskara lehen aldiz entzun nuenean harrapatu egin ninduen. Oso hizkuntza berezia eta bakarra da, oso polita". Euskara ikasteko erronka jarri zion bere buruari eta lau



Mohamed sahararrak euskara hutsean erantzun zigun. Ekhi Belar

urte daramatza euskara ikasten. Iazko alferrikako saiakeraren ostean, aurten euskararen 1. profila ateratzeko asmoa dauka ekainean.

Hilabete gutxitan San Blas baino EIBARTARRAGOA

Gurpil-aukiarekin ezin zen Irurako etxeko sukaldean ere sartu. Alokairuan bizi zen han, baina 2017ko maiatzean Babes Ofizialeko Etxea eman

zioten Eibarren. "Ipuruan bizi naiz eta oso pozik nago. Egoikitutako etxea da eta orain denetarik egin dezaket!", dio pozik.

Eibar asko gustatzen zaio eta Udal Euskaltegian zein liburutegian ikusi dezakegu sarritan. "Foballa dagoenean taberna batera joaten naiz partiduk ikustera. Fobalzale amorratua naiz!". Eta Eibarzalea. "Denboraldia gaizki hasi zue-nean zorte txarra ekarri nuela pentsatu nuen, baina orain bikain dabil".

San Blasa ere gustatzen zaio eta tearekin hartzen du. "Euskaltegian opila egin genuen eta gozoa iruditu zitzaidan, tearekin batera hartzeko perfektua". Aurtengoak bere lehenengo Sanblasak izango dira, baina etorkizunean opil gehiago jateko asmoa dauka, hemen ikusten duelako bere burua. "Betiko".

القاء الی کولی سلام مع تکولی ما

Mat kul maasalama kul ila ligua

Ez esan agur, esan gero arte

Martitzenian urteko batzarra egin eben Gipuzkoako jubilau eta pentsiodunak osatzen daberen Duintasuna alkartekuak. Eibarko pentsionistak ez eze, probintziako herrixetatik etorritakuek elkartu ziran Arrate Kultur Elkarteko lehen pisuan egindako batzarrian eta, amaittu ondoren, Untzagaraño jua ziran konzentraziñua egin eta alkartiaren eskaeriak kalera etartzeko. Herrixan bertan euki dittugula aprobetxauta, Eibarren zeozer antolatzia tokatzen darian, horren koordinaziñuarekin-eta arduratzen dan eta Eibarko Nagusien Kontseilluan dagan Emilio Aiastruarekin berba egin dogu.

EMILIO AIASTUI

(Duintasuna alkarteko kidia):

“Pentsiñuena gizarte osuari eragitten detsan arazua da”



- Zertan dihardu Duintasuna alkartiak?

Alkartiak hillero billera bat egitten dau, juntatzen garan bakotxian herrixa aldatzen goiaz, holan herri ezberdiñetan txandaka ibiltzen gara. Billeriarekin batera normalian konzentraziñua egitteko aprobetxatzen dogu, billeria amaitzian edo, bestela, hasi baiño lehen.

- Esku artian ditzuzuen gaixen artian pentsiñuenak garrantzi berezixa daka oin momentuan, ezta?

Berez pentsionisteri eragiten detsen gaixak tratatzeko asmuarekin sortu zan alkartia, hau da, esparru diferentietako kontuen inguruan jarduteko, baiña gaur egunian eta gauzak zelan dagaizen ikusitta, debatia batez be pentsiñuen ingurukua izaten da. Izan be 10 urteko tartian pentsionisten eros-ahalmenak %20ko galeria euki dau, horrek esan nahi daben guztiarekin eta, gauzak aldatu ezian, etorkizun baltza dakagu. Bestalde, arazua ez da bakarrik pentsionistena, ezta gitxiago be. Izan be, pentsiñuak horren bajuak izatiak eta, horren ondorioz, eros-ahalmena galtziak gizarte osuari eragiten detsa. Pentsa etxe askotan diru-sarrera bakarra pentsiñua dala eta, hortaz, zenbat jende dagan diru horren menpe.

- Gero eta sarrixago entzuten dogu laster pentsiñuak pagatzeko dirurik ez dala egongo, horretarako kajan eguana gastau dabela... horrelakuak entzunda zer pentsatzen dozue?

Urtiak dira Banka pentsiño pribatuak sustatzeko ahalegiñetan dabilela, oingo pentsiño sistemaren kaltetan. Eta hori gitxi baltiz, pentsiño pribatuak, bestiak ez bezala, abantailla fiskalak dittue eta, bestiak beste, ez dake PFEZ (persona fisikuen errentaren gaiñeko zerga) pagatzeko derrigorrik. Jendia beldurtziarren, oin arte ezagutu dittugun pentsiñuak desagertuko dirala dabiz esaten aspalditik, baiña ez gara horrelako amarruetan jausi bihar. Hain zuzen be, hori da eurak emon nahi daben mezua, baiña gu joko horretan ez jausten ahalegindu bihar dogu. Bestela, pentsiñorik ez dogula izango siñistu ezker, borrokatzen hasi baiño lehen borroka hori galdutzat emongo dogu eta orduan jai dakagu.

- Oin dala hille batzuk siñadurak batzen ibilli ziñazien, Eusko Jaurlaritzan aurkezteko. Zertan da kontu hori?

Gure eskaera nagusixak babesteko siñadurak batzen ibilli giñan, herri-ekimen legegillia abiatzeko asmuarekin. Gure aldarrikapenak eta horrek babesteko batu gen-

duazen 72.000 siñadurak hartu eta Eusko Jaurlaritzara jua giñan entregatzera. Baiña oin arte ez dogu iñolako erantzunik jaso, ixiltasuna baiño ez. Berez pentsiñuak ez dira Jaurlaritzaren eskumenetan sartzen, baiña RGI eta holakuen bittartez pentsiñuen konplementaziñua ordea bai, hori bada Jaurlaritzaren eskumena.

- Pentsiñuekin batera, zeintzuk dira ardua nagusixak zeuendako?

Gure eskaera nagusiña pentsiñuen ingurukua izanda be, horrekin batera badago ardua haundixa sortzen deskun beste kontu bat, botiketako ordainketa partekatua edo koordainketia hain zuzen be. Ezin dogu ahaztu gutariko askok botiken premiña dabela eta hortxe be diru mordua juaten jaku.

- Hainbat urte pasau eta gero aurten atzera be % 0'25eko igoeria izango dala entzutiak zer eragiten detsu?

%0'25eko igoeria aplikatzen dabela esatia guri aurpegira barre egittia da, adar-jotze galanta! Azken urtietan hori da pentsiñueri aplikau detsen igoeria, baiña horren aurretik pentsiñuak be KPlaren arabera igotzen zittuen eta guk horretara bueltatzia eskatzen dihardugu, gerora, sosiguz-sosiguz, galtzen jua garan eros-ahalmena berreskuratzia lortu arte.

Gero eta pentsionista gehixago bizi dira pobrezian

Gero eta ozenago entzuten dira jubilau eta pentsionisten kejak, eta horretarako motiborik ez jakue falta, gainera: Espainiako Gobernuak, bosgarren urtez jarraixan, 0,25eko igoeria aplikau detse pentsiñueri. Horren arabera, hilleko 2,3 euro gehixago jasoko dittue pentsionistak batezbeste, urtian 32,2 euro gehixago. Salatzen dabenez, gero eta pentsionista gehixago bizi dira pobrezian.

Gipuzkoan, 184.000 pentsiodun (biztanlien %26) dagoz gaur egun eta horretatik 100.000 inguruk 1.080 eurotik beherako pentsiñua kobratzen dabe. Gauzak holan, Duintasuna Gipuzkoako jubilau eta pentsiodunen alkartiak hori aldatzeko biharrari heldu zetsan oin dala urte batzuk. Oin momentuan, alkartiaren eskaera nagusixak zuzen-zuzenian pentsiñueri lotuta dagoz: Europako Karta Sozialak gomendatzen dabernari jarraituta, gitxieneko pentsiñua 1.080 eurokua izatia pentsionista guztiendako; eta, horrekin batera, Espainiako Gobernuak Gizarte Segurantzako eskuduntza guztiak Eusko Jaurlaritzari transferitzia.



Aurten mintegia martxoaren 7an izango da

Gorde agendan!!!

EUSKARAREN TRANSMISIOA
VIII. mintegia



Jon Martinez (BooktuberBoom lehiaketako irabazlea)

“Booktuberrak liburu bati buruzko gomendioak ematen ditu eta irakurzaletasuna pizten du”

Jon Martinez eibartarrak irabazi du gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko asmoz Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak eta Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteak elkarlanean antolatutako BooktuberBoom lehiaketa. Jonek 15 urte egingo ditu laster eta DBHko 3. maila egiten dihardu Itzian. Booktuber baten zereginari eta irakurzaletasunari buruz egin dugu berba berarekin.

- Nola jakin zenuen lehiaketaren berri eta zein da Booktuber baten zeregina?


Eskolan eta liburutegian kartelak ikusi nituen eta gero ...eta kitto!-n irakurri nuen Iban Garcíari egindako elkarrizketa. Parte hartzeko aukera ikusi eta martxan jarri nintzen. Booktuber baten bitartez besteei gustuko izan duzun liburu bat gomendatzen diezu. Oso ondo dago gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko, askotan ez dakizu zer irakurri eta beti egiten diegu kasu gehiago gu bezalako gazteei nagusiei baino.

- Ze liburu aukeratu zenuen zure bideo-rako?

Antton Kazabonen “Erotik” liburuaz jarduten dut. Liburu horretan hamabi istorio eta hamabi marrazki dibertigarri biltzen dira. Bai idazleak, bai marrazkilaria hizkuntzarekin jolastu dute eta hasiera batean sexuaren inguruko zerbaitez ari direla pentsatzen badugu ere, bestelako ustekabeak eramango dugu. Sexuaren tabua apurtzeko liburu aproposa iruditut zait.

- Nolako baliabideak erabili zenituen bideoa egiteko?

Liburuaz zertaz doan azaltzeaz gain, funtsezkoa zen azaltzeko modua erakargarria izatea. Bideo dinamikoa egin nuen, pixka bat mugituz, efektu batzuk sartuz, musika, zenbait argazki... Horrela asko irabazten du. Bideokamera eta tripode batekin grabatu nuen eta gero ordenagailuz editatu nuen. Ondo landutako nire lehenengo bideoa izan da.



- Irabaztea espero zenuen? Zer esan dizute lagunek eta etxekoek?

Ez nuen espero inola ere irabaztea. Finalista nintzela esan zidatenean oso pozik jarri nintzen, eta ondoren, ETBko Gure Kasako platoon lau finalistaren artean irabazlea ni nintzela iragarri zutenean, sekulako ilusioa egin zidan. Mundiala izan zen, benetan! Oso urduri jarri nintzen, are gehiago platoon Antton Kazabon liburuaren idazlea agertu zenean. Saria kamera bat eta 50 euro liburutuan izan zen. Kamarak bideo gehiago egiteko aukera ematen dit eta liburuak ere eskertzen dit, asko gustatzen zait irakurtzea. Etxe-

koak telebistako finalean egon ziren eta egia esan ez zuten espero irabaziko nuenik. Esperientzia bikaina izan da denontzat. Institutuan ere lagun eta irakasle guztiak enteratu dira eta denek zoriondu naute.

- Nolako liburuak atsegin dituzu?

Nire arrebak gomendatutako liburuak hasi nintzen irakurtzen eta berehala engantxatu nintzen. Gazte literatura irakurtzen dut gehienbat. Pena da euskaraz ez dagoela katalogo oso irekia. Gustatuko litzaidake gazteentzako euskarazko liburu gehiago egotea, hor hutsune bat dagoela antzematen dut.

MAIALEN LOPEZ IGLESIAS

8. URTEURRENA (2010-I-30)

“Zortzi urte badira ere gure aldetik joan zinela, zure maitasunak eta irribarreak gure bidea argitzen jarraitzen du. Askok maite zaitugu”

ETXEKOEK



Prestakuntza tailerrak Debabarreneko gazte langabetuentzat

Debabarreneko Udalek, Debegesa eskualdeko garapen agentziaren bitartez, Txertatu Merkatuan egitasmoaren bigarren edizioa abiatu dute. Egitasmo hori Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren baitan kokatzen da, Europako Gizarte Funtsak %91,89an finantzaturik dago eta Garapenek koordinatzen du, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin.

Txertatu Merkatuan egitasmoaren helburua da ikasketak laga eta langabezia dauden 16 eta 30 urte bitarteko gazteei gizarte- eta lan-aktibazio jardueretan parte hartzeko aukera eskaintzea, benetako lan-esperientziak izan ditzaten. Egitasmo berritzailea da eta partaideen ezagutza eta trebetasunak hartzen dira oinarritzat lan-profil bat eraikitzeko. Txertatu Merkatuan programak gazteen profil eta premiei ego-



TXERTATU MERKATUAN

kitutako ibilbidea proposatzen du eta bi fasetan garatzen da: Egokitu eta Trebatu. Egokitu izeneko lehenengo fasea gizarteratze eta lan-aktibaziorako laguntza-proze-

suaren hasiera da; bakarka zein taldean lan eginez parte-hartzaileen lan-profila eraikitzea du helburu. Bigarren fasean, **Trebatu** izenekoan, gazteek prestakuntza tailerretan parte hartuko dute, enpresetan praktikak egiteko aukerarekin.

Debabarrenean hurrengo ikastaroak eskainiko dira, otsailean eta martxoan hasita: Estaldura eta Pintura ikastaroa eta Elikagaiak eta edariak zerbitzatzeko eta edariak prestatzeko oinarritzko teknikena otsailaren 12an hasiko dira, Eibarko Oinarritzko Lanbide Heziketa Udal Institutuan. Eta Biltegiko Jarduera Lagungarriak martxoaren 5ean hasiko da, IMH Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan. Izen-ematea doakoa da. Informazio gehiago: www.debegesa.eus, 943 82 01 10 telefonoan edota idazkaritza@debegesa.eus

Gaur eta bihar Ilargi Fest jaialdi feminista hartuko du Gaztetxeak

NALUA Eibarko feministak eta NÜ SHU Ermuko gazte feministak antolatu dute Ilargi Fest 2.0. Helburua, alde batetik, emakumez osatutako taldeei taula gainera igotzeko aukera ematea da, eta baita bi herrietako talde feministen arteko harremana sendotzea, elkarrekin lan eginez sare indartsuagoa osatzeko. Bestetik, "feministok jai giroan aske gozatzeko eskubidea, gogoia eta ahalmena" dutela ere erakutsi nahi dute. Bi egun hartuko ditu egitarauak: gaur 'Tomar el escenario' dokumentalaren proiektzioa eta mahai-ingurua egongo da, Emaginaren eskutik. Dokumentalean musika alternatiboan emakumezkoek izandako rola erakusten da, eurekin edo eurak gabe; horretarako, hogei elkarriketa jasotzen dira bertan.

Bihar, bestalde, maskara eta buru beroki tailerra, batukada feminista, basoa buruan lehiaketa eta kontzertuak izango dira, arratsaldeko 18:00etatik goizeko 05:00ak arte hartuko duen egitarauan. Hasteko, maskara eta buru-beroki tailerra eskainiko da; ekitaldirako erropa zaharrak eramatea gomendatzen dute. Jarraian, 19:30ean, Batukada feministaren hitzordua izango da. 22:00etan hasiko den kontzertuan, Elena Caballero La Basu, Drumkopters, La Furia eta DJ Tarantistak Martxan izango dira taularatuiko diren taldeak eta sarrerak 3 euro balio du. Eta, amaitzeko, goizeko 05:00etan basoa buruan lehiaketari ekingo diote. Egitarau bikaina, beraz, Ilargi Fest-ak eskaintzen duena, musika, tailerrak eta dokumentala tartean direla.



MAITANECASTILLOTAOLA XI. urteurrena

*Bizipozez beteta esnatzen den / Txoritxo kantarienari
eskerrik beroena ematea / besterik ez zaigu geratzen;
maitasunez, alaitasunez, itxaronpentsu / zuk irakatsi zenigun bezela.
Zure irribarrerik goxoa gogoratzeak, / aurrera egiteko kemena
emango digulako; / bide luze honetan hau hasiera besterik ez da eta.
Estali arren ez baita / itzaltzen izarrak duen distira.*

"ZURE TROPA"



Liburuak



eva alberdi
—UDAL LIBURUTEGIA—

Urte hasierako asmoak, desioak...

Urte hasieran beti izaten dugu buruan **zerrendatxo bat gure asmoekin**: kirol gehiago egin, dirua aurreztu, pisu pixka bat galdu, erretzeari utzi... Horietatik, zenbat bete ditugu urtea amaitutakoan? Nik honako hauek proposatu nahi dizkizuet beste horiek betikoak izaten direlako eta segur aski badituzuelako zuen zerrendetan.



Hilean liburu bat irakurri. Bai, badakit denbora falta jarriko duzuela aitzakiatzat, baina zenbat denbora pasatzen duzue egunean mugikorarekin jolasten edo telebista ikusten? Kendu denbora tartetxo bat hortik eta harritu egingo zarete zenbat irakurri daitekeen ikusita.

Nire seme-alabekin irakurketa tarteak konpartitu. Nekatuta iristen gara etxera lanetik edo umeekin parkean egotetik. Errekaduak, afaria, bainuak... bukaezinezko zeregin luzea. Baina probatu ezazue umeak oheratzerakoan 15 minutu beraien egoten. Ipuin bat irakurtzeko ematen du. Ikusiko duzue nola umea irrikan egongo den momentu hori iristeko.

Irakurketa talde batean izena eman. Denei gustatzen zaigu irakurtzen duguna

norbaitekin komentatzeko aukera izatea. Eta ez da erraza lortzea. Futbolari buruz asko hitz egiten da, baina liburuei buruz? Zuen lagunetatik zenbatek irakurtzen dute? Horretarako badaude aukerak Liburutegian bertan. Etor zaitez galdetzeraz ea zer egin ahal dugun, taldeak osatuta badaude ere.

Liburutegira gehiago joan. Badira hona datozenak denbora pasa: egunkaria irakurtzera, aldizkari bat ikustera, pelikula bat aukeratzera edo isiltasunaz disfrutatzera. Ez da leku txarra zure denbora libre pasatzeko. Umeekin ere etorri zaitezke, edo zure amarekin... Proba ezazu eta esango diguzu.

Lau asmo bakarrik dira. Bete ahal izango dituzu, ezta?



iñaki
zubillaga

Musika

1984ko otsailaren 9an kriston kontzertua izan zen **Ermuko frontoian**. Hiru taldek osatzen zuten karteldegia: Hertzainak, Cicatriz eta Decibelios. **Hertzainak** gazteztarrak 1984an lehenengo diskoa kaleratu zuten, primerakoa. **Cicatriz** punk taldea lehenengo diskoa prestatzen ari zen, "Inadaptados" zoragarria. Eta **Decibelios**, Bartzelonako Oi!!



musika jarraitzaileak, lehenengo diskoarekin sekulako arrakasta izaten ari ziren.

Garai horretan, gizarte eta politikaren aldaketekin batera, musika izan zen gazteriaren ahotsa entzuteko erreminta nabarmena. Eta kontzertuak, nola ez, une aproposena amorruguztia kanporatzeko.

Ermuko kontzertuaren emaitza honakoa izan zen: 4.000 lagun kabitu ezinik eta 12.000 lata. **Pedro Espinosak Egin egunkarian** idatzi zuen kronikan kontatzen zuen zelan giro horretan jaia nahiko ondo amaitu zela, baina izugarriko desastrea ere gertu izan zela.

Hona hemen **German Amuategi Garateren** lekukotasuna: "Zerk bultzatzen ninduen kontzertuetara juateko? Ba, batez be... bizi genduan egoera sozialak: industriaren egoeria,

4.000 lagun

eta 12.000 lata



HERTZAINAK

langabetuak, gizarte matxista, estatuarekiko amorrua, poli-ziak, estatuak eta erlijioak zeken botere nazkagarria. Azken batian, talde horien sorrera irtenbide moduan ikusten genduan eta barruan genkan amorruguztia euren letrak abesterrakuan etaritzen genduan. Beste askorentzat ondo pasatzeko modu bat be izan zan, jendea elkartzeko, dantzatzeko eta, aldi berean, burua pixka bat galtzeko. Bizitzeko modu bat be izan zan: ez genduan gizartia beste ikuspuntu batetik ulertzen, **No Future** bakarrik.

Eta aste guztia kontzertuetan pentsatzen eta kontzertuak komentatzen igarotzen genduzen. Astegunetan eztabaidak izaten genduzen gizartian bizi genduan egoerari buruz; eta, asteburuetan, kontzertuetara dena emotera...".



Kezka dantza taldeak **bihar**, San Blas egunean ospatuko ditu aurtentako **koko-dantzak**. Oraingoan, 08:30ean Merkatu Plazan lehen agerraldia egin eta gero, Mandiola eta Aginako **baserrietan** ibiliko dira goiz guztian (09:00etatik 15:00etara) eta arratsaldean, berriz, herriko kaleetan egingo dute **koko-dantzen kalejira**, Elgoibarko Mautitza txarangarekin batera, 19:00etatik 21:00etara. Urtero egiten duten moduan, anbulatorio parean batu eta Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga, Calbeton eta Eibarko Bizikleta Plazan ibiliko dira koko-dantzak eskaintzen.

Eta asteburu honetan Aratosteetarako girtzen hasi eta gero, **EGUEN ZURI** egunean jaietan bete-betean sartuko gara. Betiko moduan, bazkalostean, 15:30ak aldera hasiko diren **ikastetxeen kalejirekin** ekingo zaie Aratosteei. Eta 17:00etatik aurrera **Untzagan dantzaldia** emanango du Lisker taldeak. Ordu berean hasiko da Urkizutik Untzagaraino joango den **kalejira**, Adolfo Jainagaren trikitixa eskolakoekin. Eta Astixaren eskutik, berriz, **"Munduko Tribuak"** kareta eta maskara tailerrak egingo dira, 17:00etatik 19:00etara Untzagan.

ARATOSTE BARIXAKURAKO egitaraua 20:00etan hasiko da, Urkizun hasita Untzagaraino **Kaldereroek** egingo duten **kalejirarekin**. Besteak beste, Kezka Dantza Taldea, ...eta kitto! euskara Elkartea, Txolarte, Ustekabe fanfarrea, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak, Lagun Taldea, Untzagako jubilatuen abesbatza, Kaleetan Kantuz eta Jainagaren trikitixa eskolakoak izango dira parte hartzen. Untzagara ailegatzean, 20:30ean Kaldereroen abestiak eta dantzak eskainiko dituzte eta, jarraian, **Aratoste Pregoia** egingo dute. Afalostean parrandarako aukera izango da aurtentako, 23:00etatik aurrera **Eirband taldeak kontzertua** emanango du eta.



Aurtentako Aratosteak goiz ailegatu zaizkigu: ospatzen lehenetarikoak Sunbilla eta Leitzakoak izan ziren eta gurean, berriz, bihar hasiko dira jaiak, koko-marru eta koko-dantzarien konpartsak egingo duen koko-eskearekin.

San Blas egunean hasiko ditugu Aratosteak, koko-dantzekin

ARATOSTE ZAPATUKO ekitaldiak eguerdian hasiko dira: San Kristobalgo Jai Batzordearen eskutik animazioa egongo da karpan. Horrekin batera ardo dastaketa eta pintxoak eskainiko dituzte. 12:30etik 14:00etara **Rockalean taldearen emanaldia** egingo da Untzagan eta ordu berean hasiko da **Aratosteetako kuadrillen kalejira**, Ustekabe fanfarreak lagunduta.

Arratsaldean, berriz, **umeendako koko-**

jantzi lehiaketa egingo dute Galiziako Etxean (17:00etan) eta 18:30etik 20:30era **umeendako berbena** eskainiko du **Alaiki taldeak** Untzagan. Han bertan banatuko dituzte lehiaketetako sariak, 19:00etan. Horrez gain, 18:00etatik 20:00etara **kalejiran** ibiliko **Brass Band taldea**, Untzogatik hasita eta gauean **dantzaldia** eskainiko du Alaiki taldeak, 23:00etatik 02:00etara.

w w w . a l d a t z e . e u s

aldatze



**VII. ALDATZE
DENOK GARA**
otsailaren 3an
11.00etan



ARATOSTE DOMEKAN, berriz, kalejira egingo du **Usartza** Txistulari Taldeak, **11:00etatik** aurrera. Eta arratsaldeko **17:00etan**, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta **umeendako Playback Lehiaketa** egingo da Untzagako karpan, **DJ Arnok** girotuta.

ARATOSTE MARTITZENERAKO beste batzuetan baino egitarau potoloagoa prestatu dute aurten: **17:00etatik** 18:30-era Untzagan **umeendako jolasak** egingo dira, Astixaren eskutik. Jarraian, **Hortz-muga antzerki taldeak eta trikitilariak** launduko duten **sardinaren entierri txikia** ailegatuko da. Ondoren, **umeendako disko-teketa** egongo da karpan, **Arima Cool Tour** taldearekin eta, horrekin batera, 7-11 urte bitarteko haurrek **break dance erakustaldia** egingo dute.

Aratoste lehiaketa bi

Aratosteetarako lehiaketa bi antolatu ditu Eibarko Udalak, kuadrillen kalejirako lehiaketa eta ondoen apaindutako tabernarena. **Aratosteetako kuadrillen kalejirako** lehiaketan parte hartzeko **izen ematea** martitzenean zabaldu zuten eta **otsailaren 8an**, 14:00etan **itxiko dute**. Eta Aratosteetan **ondoan apaindutako tabernan lehiaketarako** izen ematea ere zabalik dago eta **otsailaren 9an**, 14:00etan **itxiko da**. Lehiaketa biei buruzko informazioa Udalaren web orrian eskuratu daiteke.

Aratosteetako kuadrillen kalejirako lehiaketa Aratoste Zapatuan (otsailaren 10ean) izango da, **12:30ean**. Izena ema-



Kaldereroek Barixaku Erregularrean irtingo dute kalera, urteroko elkarte eta taldeen parte-hartzeaz.

ten duten taldeek gutxienez 10 partaide izan beharko dituzte. Ume zein helduek har dezakete parte, adinak berdin dio. Koko-jantzien gaia librea izango da, taldeki-deek aukeratuko dute, baina taldekide guztien koko-jantziek gaiarekin lotura zuzena izan beharko dute. Izen-ematea internet bidez, www.eibar.eus helbidean egin daiteke edo, bestela, Pegoran, Herritarren Zerbitzurako Bulegoan.

Kalejira edo desfilea 12:30ean hasiko da, Untzagan, eta honako ibilbideari jarraituko diote: Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Arragueta, Errebal, Toribio Etxebarria eta Untzaga (harmailen aldea). Bestalde, desfilea hasi baino ordu laurden lehenago, 12:15ean, talde bakoitzetik arduradun bat karpako eszenatokira joan be-

harko da, desfilearako zenbakia jasotzera. Desfilea amaitzean taldearen argazkia egin beharko dute Untzagako harmailetan (euria egingo balu, argazkia karpan, eszenatokian egingo litzateke).

Lehiaketaren inguruan edozein zalantza izanez gero, Portalean, Kultura sailean galdetu daiteke edo, bestela, 943 708 435 telefonora deitu edo kultura@eibar.eus helbidera idatzi. Lehen saria irabazten dutenek Eibarko XLI. Antzerki Jardunaldietako antzezlan baterako sarrerak jasoko dituzte. **Epaimahaikideen erabakia** egunean bertan, otsailaren 10ean, **19:00etan jakinaraziko da**, Untzagako karpan egingo den haurrentzako berbenan. Sari bakarria banatuko dute eta irabazleek eszenatokian jasoko dute saria.

500 euro eta garaikurra taberna dotoreenarentzat

Aratosteetan ondoan apaindutako tabernan lehiaketan, bestalde, Aratosteetarako lokala apaintzen duen Eibarko edozein tabernak har dezake parte. Izen-ematea internet bidez, www.eibar.eus helbidean, Pegoran, Herritarren Zerbitzurako Bulegoan edo telefonoz, 010 edo 943708400 zenbakietara deituta egin daiteke.

Lokalak otsailaren 9an, arratsaldeko 18:00etarako prest egon beharko dira, epaimahaikideak arratsaldean zehar pasatuko direlako tabernatik. **Epaimahaikideen erabakia** bertan emango dute, jendeak irabazi duen taberna asteburuan ikusteko aukera izan dezan. Irabazleari 500 euro eta Eibarko Udalaren garaikurra emango dizkiote.



Aratoste Domeka arratsaldean umeendako Playback Lehiaketa egingo da Untzagan.

Aratoste barixakuan, otsailaren 9an, **EIRBAND** musika taldeak kontzertua emango du Untzagako karpan, 23:00etatik aurrera. Taldea orain dela bi urte eta erdi sortu zen, musika munduan urte askotako ibilbidea eginda daukaten 4 musikari elkartu eta proiektu berri bat lantzen hasi zirenean. Taldeko bateria, Iñaki Ortega, eibartarra da, eta askok ezagutuko duzue Luther, Seafoid, Euskelga eta beste hainbat musika taldeetan ibilitakoa delako. Beste kideak (Victor, Jon, eta Iñaki) Ermua eta Durangokoak dira. Iñaki Ortegak eman digu taldearen berri.

EIRBAND

80 eta 90. hamarkadetako arrakastak Aratoste barixakuko gaua berotzeko

- *Eibarko seilua jarri diozue taldeari.*

Iñaki Ortega: Eibarren daukagu operazio-gunea, Legarreko lolaketan, eta horregatik erabaki genuen Eibarri keinu egiten dion izena jartzea, taldean eibartar bakarra egon arren. Orain dela pare bat urte hasi ginen elkartzen, hiru astetik behin, eta berehala geure artean kimika zegoela igarri genuen. Euretako bi elkarrekin jo-

tzen ohituta zeuden, baina beti baseekin jotzen zuten. Bateria akustikoa gehitzea aldaketa izan zen taldearentzat. Geroago teklatura gehitu genuen.

- *Zer nolako musika egiten duzue?*

80 eta 90 hamarkadetako bertsoak egiten ditugu eta abesti originalak egiten saiatzen gara: Dire Straits, Police, Van Halen, Itoiz, Tam Tam Go, Nacha Pop... Apurtxo

bat ahaztuta dauden abestiak dira, baina oso onak, mitikoak. Gure lana ahalik eta hobetoen egiten saiatzen gara –egia esan, urteekin oso perfektionista bilakatzen zara–, hori kontuan hartuta bakoitzak bere lana eta familia daukagula, eta denbora larregi ez daukagula.

- *Aratosteetan Untzagan emango duzuen kontzertua aukera polita da "saltoa" emateko?*

Zenbait lekutan jo izan dugu, baina orain iritsi zaigu *zulotik* irtetzeko momentua. Orain arte produktua sortzen, orrazten egon gara. Gauzak ondo egin nahi ditugu eta uste dugu produktu ona daukagula. Untzagako aukera sortu zaigu eta guretzako urtean etor daitekeenaren irteera puntua da. Izan ere, zenbait gauza ateratzen hasi zaizkigu eta ziur aukera gehiago sortzen joango direla. Aratosteetan jotzeko deitu zigutenean materiala grabatzen ari ginen; 23 abesti inguru ditugu eta soinu onarekin grabatzen ari ginen, lekuetara bidaltzeko eta hortik abiatzeko. Orain kontzertu honetan zentratzen ari gara eta gero grabazioarekin jarraituko dugu.

- *Beraz, gustura hartu duzue Eibarren jarduteko gonbitea.*

Oso pozik gaude eta jendea animatu nahi dugu. Ondo pasatuko dute garai hartako, gure garaiko abestiak berriro entzuten.



Eirband taldeko kideentzat musika bizitzeko modu bat da. Urte askotako esperientzia dute eta ilusio handiz ekin diote proiektu berriari.





BAKARNE ELEJALDE: "San Blas bedeinkatuak".

Bi garaipen eta bi porrot errugbiko taldeen azken jardunaldiko partiduetan

Logroñon jokaturako Emakumezkoen Euskal Ligako partiduan, Avia Eibar Rugbyko emakumezkoen taldeak beste garaipen bat poltsikoratu zuen eta erraz nagusitu zitzaion Marzola Riojari (17-35). Garaipen horri esker, sailkapeneko bigarren postuan jarraitzen dute, La Unicaren atzetik. Euskal Ligako Erregionalean jokatzen duen Avia Eibar Rugbyko bigarren taldea, bestalde, azken aldiko porrotak ahaztu eta garaipen bidera itzuli zen, Unben La Unica B gaindituz (27-21).

Ez zuten aurrez aipaturakoen zorte bera izan Ohorezko B Mailan jokatzen duen Avia Eibar Rugbyko lehen taldekoek, oraingoan amore eman behar izan zuten eta El Salvador B-ren aurrean. Valladoliden jokaturako partidua 20-8 emaitzarekin amaitu zen. Eibar Rugbyko 16 urtetik beherako taldekoek ere galdu egin zuten. Universitario Bilbaoren aurko partidua polita izan zen eta ondo jokatu, baina azken emaitzak (33-0) ez zuten islatu eibartarren joko txukuna.



Gizonezkoen bigarren taldeak ere irabazi zuen azken partiduan.



Osorotarren garaipen bikotea neguko triatloiarren Espainiako Kopan

Sei kilometro egin zituzten antxintxikan, 17 bizikleta gainean eta beste bederatzik eskiek. Sorriako Vinuesa herrian jokaturako neguko triatloiarren probako distantzia horietan erakutsi zuten euren nagusitasuna anaia biek eta lehengo bi postuez jabetu ziren. Oraingoan gazteenak hartu zion aurrea zaharrenari eta 3 segundoko aldeaz helmugaratu zen Espainiako Koparako proba baliagarrian. Delteco Eibar Triatloi Taldeko Txomin Osorok ordubete, 40 minutu eta 2 segundo behar izan zituen Pelloren aurretik helmugaratzeko. Eibartarrak gizonezkoen proban nagusitu ziren moduan, emakumezkoetan M^a Cruz Aragon (SDR Arenas) izan zen onena.

Eguraldi bikaina lagun izan zuten parte-hartzaileek proba guztian "eta izan zen manga motzean osatu zuenik ere". Hasierako oinezko lasterketaren amaieran laukote batek hartu zuen aurre, Txomin Osoro tarteke, eta 25 segundora heldu zen beste taldetxo bat Pello Osororekin. Bizikleta gainean nagusitu zen batez ere Txomin, eta tarte hori 50 segundoko aldeaz amaitu zuen, Pello anaia eta Carlos Nietoren aurretik. Eskiatzerakoan Pellok indar erakustaldia eman zuen eta Txomin harrapatzekotan egon zen: 3 segundo besterik ez zen izan anaien artean. Xabier Orduña hirugarren sailkatuak ere lau minutu kendu zituzkion irabazleari eskiko tartean eta 58 segundora helmugaratu zen.

Txokok aldea handitu dezake foball-zaletuen Kirolbet txapelketan

Bar Txoko liderrak jarraitzaileekiko aldea handitzeko aukera izanongo du asteburu honetan bigarren eta hirugarren sailkatuen arteko norgehiagoka jokatu delako 16. jardunaldian. Garajes Garcia (31 puntu) eta Azkena Adahi (30) nor baino nor izango dira domekan, 10:30etik aurrera, justu Bar Txokok (36) Durangoren aurka jokatu beharreko partidua aurretik. Liderrak ez badu hankasartzerik egiten, jarraitzen dioten bietako bat gutxienez lidergotik urrutiago geratuko da.

Aipaturako hirurek eta Ipur Sagardotegiak (27 puntu) osatzen dute ihes egin duen goiko multzoa, eta atzetik beste lau taldek osatzen duten hurrengo taldetxoa dator (hiru puntutan daude Feredu Solutions, Reformas Hiru, Alkideba eta Durango). Geratzen diren sei taldeetatik, bosten artean bost puntutako aldea dago; eta atzean geratu da, bakarrik, Bar Arkupe, hiru punturakin, aurreko jardunaldian irabazi zuen partiduari esker.



Asier Urzelai Gisasola

Hamar urte igaro dira, gure artetik joan zinenetik, baina ez dago unerik zutaz oroitzen ez garenik. Gure bihotz barrenean eramango zaitugu. Zure familixa.

asteburuko agenda

FOBALLA

1. Maila

Eibar - Sevilla (bihar, 13:00)

Emakumezkoen 2. Maila

Logroño - Eibar (etzi, 12:00)

2. B Maila

Arenas - Vitoria (bihar, 17:00)

Emakumezkoen Lurralde Maila

Eibar - Beti Gazte (xxxx, XX:XX)

Erregional Gorengo Maila

Elgoibar - Eibar Urko (bihar, 16:30)

1. Erregionala

Urki - Elgoibar (bihar, 16:00)

Ikasberri - Eibartarrak (bihar, 17:30)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Eibar - Getxo (bihar, 18:15)

KADETEAK

Euskadiko Liga

Eibar - Kostkas (etzi, 15:45)

FOBALL-ZALETUA

KirolBet Liga

Slow XOK - Feredu (bihar, 09:00)

Bar Areto - Tankemans (bihar, 09:00)

Ipur - Reformas Hiru (bihar, 10:30)

Sporting - Esmorga (bihar, 12:00)

Bar Arkupe - Alkideba (etzi, 09:00)

Azkena Adahi - G. Garcia (etzi, 10:30)

Bar Txoko - Durango (etzi, 12:00)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

San Antonio - Somos Eibar (bihar, 19:00)

Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa

Avia Eibar - Egia Kopidin (bihar, 19:00)

Gipuzkoako 1. Maila

Ormaiztegi - Haritza (bihar, 17:30)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Avia Eibar Rugby - Durango (bihar, 16:00)

SASKIBALOIA

3. Maila

Monaco Gamon - Katu-Kale (bihar, 18:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Lautada - Urbat Urkotronik (etzi, 11:30)

Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Bidasoa XXI (etzi, 15:40)

XAKEA

1. Maila

Eibar A - Idiazabal A (bihar, 16:00)

3. Maila

Arrasate-Arlutz D - Eibar B (bihar, 16:00)



Eibartarrak denboraldiko partiduaren aurrean

Lehen Mailara igotzen ahalegintzeko asmoa azaldu zuten Eibar FT-ko ordezkariak denboraldi hasieran eta emakumezkoen lehen taldeak ondo erantzun dio erronka horri, ahaleginetan badihardu-eta. 2. Mailako multzo horretan 3. postuan daude orain eibartarrak, Athletic-eko bigarren taldearekin berdinduta eta Logroño liderrarengandik puntu bakarrera. Liga amaieran bakarrik txapelduinak izango du igotzeko aukera eta, horregatik, domeka eguerdian Errioxa aldean jokatu den partidua erabakigarria izan daiteke guztiz, errioxarren eta eibartarren artean da goelako aipatutako postua (Athletic-ek ezin

du igo, bere talde nagusia duelako 1. Mailan). Jarraitzaileek, Osasuna eta aurreko denboraldian goiko mailan jokatzeko Oartzun, eibartarrarengandik 12 eta 14 puntura daude. Azken hauen denboraldia bikaina izan da orain arte, 13 garaipen, berdinketa bakarra eta bi porrotekin. Ikusita, gainera, nondik zetozen: aurreko denboraldian saikapearen erdialdean ibili ziren eta horren aurrekoan jaitzierako postuei ihes egiteko borrokatu zuten. Denboraldi honetarako egindako fitxaketa garrantzitsuek ondo baino hobeto erantzun dute eta badago aukera lorpen handienaren bila borrokatzen jarduteko.

Katu Kalek irabazten hasi zuen igoera fasea



Eibartarrak bikain hasi zuten 2. Mailara igotzeko fase berria eta Aloña Mendi baino gehiago izan ziren Ipurua kiroldegian jokatuako partiduan. 68-47 azken emaitzak bide ematen die bigarren neurketari, bihar 18:00etan Monaco Gamonen aurka Errenterian jokatu denari heltzeko. Igoera multzo horretan talde ezagunak izango ditu Katu Kalek aurkari: aipatutako biekin batera, hor izango dira Ordizia, Antigua Luberrri A eta Antigua Luberrri B.



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko

JANTZIAK

ume eta gazte

Kopina moda

f kopinamoda

San Agustin, 3
943 204181





● **tartak**

● **enkarguak**

etxera

Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73

Hiru jokalaria berri etorri dira eta beste hiruk irten dute Eibarren neguko merkatuan

Neguko merkatua zabaltzerako Eibarrek bere eginbeharrak erdi beteta zituen **da-goeneko**, Orellana eta Pape Diop-en fitxaketekin, eta handik gutxira irten zuten tal-detik, lagata, Galvez atzelaria Las Palmasen jokatzeko eta Christian Rivera erdilaria Bartzelonaren bigarren taldean denboraldiaren bigarren zatia egiteko. Ordutik ez zen mugimendurik izan, baina neguko merkatuaren azken egunean beste bi aldaketa izan dira. Vucasin Jovanovic 21 urteko erdiko atzelaria Eibarrekin ariko da sasoia amaitu arte, Girondins Bordelek lagata. Paulo Oliveira orain min hartuta egoteak eta Ramisen lesioek gomendatu dute taldeak neurri hori hartzea. Eta Bebe aurrelariak lagata jokatu du Rayo Vallecanon, denboraldia amaitu arte honek ere. Orain arte ez du larregi jokatu Bebe Eibarren: aurreko denboraldian 360 minutu eta honetan beste hainbeste. Bestalde, Nanok ez du Levanten ere aurrera egin, eta Sporting-en jokatu du.



Somos Eibarrek 23-26 irabazi zion herenegun Barakaldori atzeratutako partiduan

Somos Eibar Eskubaloia 1. Nazional Mailako taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen **astebarruan** Barakaldori egindako bisitan. Lehendik atzeratutako partiduko bi puntuak ekarri zituzten Eibarrera Fernando Fernandezen mutilek, horrela sailkapenean gora egiteko. Aste bikaina izan dute Eibar Eskubaloiko lehen taldekoak, aurreko zapatuan ere Usurbili nagusitu zitzaizkiolako Ipuruan (35-23). Bihar Iruñan jokatu dute, Jarcar San Antonioren bisita eginenez. Euskadiko Txapelketan jokatzeko duen emakumezkoen lehen taldeak ere gora egin du azken asteotan eta aurrekoan 26-29 irabazi zion Aiala B-ri. Eta emaitza berarekin nagusitu ziren Haritza gizonzkoen bigarren taldekoak Urnietaren aurka Ipuruan jokatu dute partiduan.



Deporreko bi atleta Euskadiko txapelkun martxa modalitatean

Aurreko zapatuan Portugaleten jokatu-tako martxa modalitateko Euskadiko txapelketan, Eibarko Klub Deportiboko bi ordezkari euren probak irabazi eta Euskadiko txapela jantzi zuten. Jubenil mailako Eneko Osoro eta junior mailako Markel Gutierrez izan ziren aipatutako atleta biak eta martxa modalitateko 10 kilometroko proban nagusitu ziren. Markelen kasuan, gainera, distantzia horretan lortutako 49'53"ko markarekin Valentziako Bujassot-en jokatu den Espainiako txapelketarako txartela eskuratu du.

- **SUKALDEAK**
- **BAINUAK**
- **ETXEKO ALTZARIAK**



ASKETA
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



PROMOZIO BEREZIA
%10eko deskontua
ALTZARIETAN

Galdetu baldintzak dendan



MIKEL GOROSABEL
 (musikaria):

“Historia berri baten hasiera da disko hau”

EH Sukarra, Lorelei eta Norton Club taldeetan aurpegia -eta gitarra eta ahotsa- ematen ikusi dugu urte askotan, baina beste ezizen edo aterkinik gabe datorkigu orain. Mikel Gorosabel. Izen eta abizen. Beti libre, baina orain are libreago, inongo loturarik gabe. Musikari eibartarrak, Asier Serrano lagunaren kolaborazio bereizeziinarekin, bere melodiei letra jartzeko proposamena luzatu die hamaika euskal idazleri eta ‘Barne basoan barna’ da emaitza.

- Mikel Gorosabel bezala kaleratu duzu disko berria, beste izen baten babesetik kanpo. Zure lan pertsonalena da?

Bai, izan daiteke. Orain arte ibili naizen proiektuetan ere konposatzen ibili naiz, baina oraingo honetan azken urte bietan konposatutako abestiak batu ditut eta doinu horiek kaleratzeko beharra sentitzen nuen. Beti sentitzen dut konposatutako doinuak argitaratzeko behar hori. Doinuen aldetik estilo edo forma ezberdinak daude, eta EH Sukarraren barruan sartzeko moduan ikusten ez nituezen, gaiari buelta batzuk eman eta Mikel Gorosabel izena-

rekin kaleratzea erabaki nuen. Gerora begira, historia berri baten hasiera dela esango nuke.

- Beraz, bide berri bat hasi du Mikel Gorosabelek?

Datozen urteetan egingo ditudan konposaketei irteera bat emateko bidea ireki dut. Hala ere, ez dut baztertzen aurrerago EH Sukarrarekin beste lan batzuk egitea. 2013an eta 2015ean disko bana atera genuen EH Sukarrarekin ia 11 urteko etenaldiaren ostean, eta EH Sukarra nahiko aseptuta dagoela uste dut. Errepertorio zabala daukagu eta bakarkako proiektu hau has-teko momentua iritsi da.

- EH Sukarraren edo aurreko beste proiektuen kateetatik askatu eta beste doinu batzuk lantzeko aukera eman dizu proiektu berri honek?

Duda barik! EH Sukarran ere nahiko aske sentitzen naiz, baina proiektu honetan are askeago. Espazio libre honetan doinu ezberdinak landu ditut.

- Abestietako letrak, hala ere, beste batzuek landu dituzte. Enkarguak izan dira?

Oso esperientzia aberasgarria izan da. Melodiak borobilduta nituenean Asier Serranorengana jo nuen, betiko moduan, eta bere belaunaldiko hainbat idazle ezagutzen zituela aipatu eta abestien letrak euren idazteko proposatu zidan. Bertsolaritzan

egiten den moduan, Asierrek gai bat proposatu zien: beldurra. Hamaika doinu nituen prest eta hamaika idazlerengana jo zuen berak. Zozketa bitartez banatu genituen melodiak idazleen artean eta bakoitzak berea landu du. Maila literarioari begiratuta oso disko konpletoa dela esango nuke. Gai batetik abiatuta idazle bakoitzak bere ikuspuntua eman dio eta letrei dago-kienez oso lan borobila ikusten dut.

- Idazleei melodiak eman eta horiek letrak osatu ostean, azken orduko aldaketak egon dira melodia edo letra horietan?

Melodia eta ahotsaren doinuarekin metrikak bidali nitzkien, silaba horien gainean testuak sortzeko. Orrazketa txiki bat egon da, baina oso trebeak izan dira eta ez gara trabatu arlo horretan. Prozesu arina izan da.

- Beldurra da diskoko abestiak batzen dituen gaia. Zergatik beldurra?

Gai ona dela uste dut, gai unibertuala. Lan berri bati egitean gai bat pentsatu beharra dago eta disko kontzeptual moduan garatu dut lan hau. Hasieratik amaierara entzuteko diskoa dela esango nuke. Letretan murgilduz gero, edonor sentitu daiteke identifikatuta bertan azaltzen diren beldurrekin.

- Artista moduan, zeren beldur zara?

Tira, badituzte nire beldurrak! ‘Datorrela

txamana' abestian agertzen da nola beti gabiltzan umeei beldurra sartzen. "Kontuz, ez igo horra", eta horrelakoak. Beldur hori, maite dituzunei gertatu ahal zaienaren beldurra, badaukat. Heriotzaren beldurra ere unibertsala da. Inork ez daki hor zer dagoen, eta misterio hori beti egongo da hor.

- Diskoaren autoekoizketaz arduratu zara. Nolako lana izan da?

Behartuta ekoiztu dut disko hau. Nahitaez atera nahi nuen diskoa eta ez dut aurkitu nor atera. Beraz, autoekoiztea erabaki nuen. Orain dela 10 urte baino errazagoa da autoekoiztea gaur egun, talde askok egiten dute gauza bera, eta esperientzia ona izan da. Beloud plataforman crowdfundinga egin dut jendearen ekarpenak jasotzeko eta horren bitartez gastu batzuei aurre egin ahal izan diet.

- 'Ez Dok' tabernan egin zenuen diskoaren aurkezpena. Nolako harrera izan zuen?

Oso ondo egon ziren bertan eskaini nituen bi kontzertuak. Etxean egotea bezala izan zen, oso gauza intimoa. Maite nauen jendea bildu zen bertan eta gauza polita izan zen. Proiektua abiatzeko oso esperientzia ederra. Pentsatzen dut, gainera, jendeari gustatu zitzaizkiola soinu berriak. Diskoa hasieratik amaieraraino osorik jo nuen, ordena berean.

- Zuzeneko gehiago jotzea daukazu aurreikusita?

Oraindik ez daukat ezer itxita, baina badaude gauza batzuk ixtear. Bestetik, otsailan Bilboko Bidebarrieta kaleko liburutegian bakarkako emanaldia eskainiko dut



modu akustikoan. Disko berriaren kantaren bat joko dut eta nire ibilbidean konposatutako abestiak ere entzun ahal izango dira.

- Disko berriaren zuzenekoek zein formatu izango dute?

Bateria eta baxu jolearekin, eta aurrez grabatutako soinuekin -sintetizadoreekin- joateko asmoa daukat. Hori formatu rockeroa izango litzateke, baina akustikoan jotzeko ere zabalik nago.

- Mikel Gorosabel eta EH Sukarra, bizibizi dauden bi proiektu. Biak uztartuko dituzu?

Bai, hori da nire asmoa. EH Sukarra kanpotik ikusten laguntzen nau EH Sukarratik irtetzeak. Beste proiektu batekin hastean, EH Sukarra beste maitasun batekin berreskuratzen dut eta daukan potentziala

baloratzen dut. Errepertorio, historia eta doinu aldetik dimentsio handia dauka EH Sukarrak, eta baita oso zuzeneko bizia ere. Gainera, nahiko fuerte ibili gara azken aldian eta jendea erantzuten ari da. Azken kontzertuetan, abenduan, erantzun ona izan genuen publiko aldetik eta asko estimatzen da. Bestetik, jende gaztea etortzeak ere poza ematen digu, gure publiko fidelena 30-50 urte bitartekoa delako. Azken bi diskoekin jende gaztea harrapatzea lortu dugu.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM

Funeraria·Ehortzetxe Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean
Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gaztelerratik euskarara, eta ingeleseatik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.eus



JOKIN OREGI
(antzerki-zuzendaria)

- Nor da Izar?

6 urteko neskatila da. Bere amak piano jotzen erakutsi dio, trebetasunez jotzen du eta izarra izateko bidean doa. Bide horretan ama hil eta Izarren bizitza hankaz gora jartzen da. Bere aita bizirik geratzen da, baina lur jota. Neskatoa umezurtz geratzen dela esan daiteke. Ume baten bizitza hankaz gora jarri eta zulo horretatik irteteko dituen gaitasunak erakutsi nahi izan dut obra honekin. Gainditze istorioa da eta erresilientziarekin lotu ahal dugu. Gure ikusle diren haurrei erakutsi nahi izan diet batzuetan babes-burbuila baten barruan daudela, baina uste baino indartsuagoak direla. Esperantza mezua da.

- Heriotzaren gaia haurrengandik aldentzen da sarritan. Ondo dago hori?

Nire iritziz oso garrantzitsua da umeekin horrelako gaiak jorratzea. Horrelakoa da bizitza, eta nahiz eta ezkututzen saiatu, umeek talka egingo dute errealitate

“Oso garrantzitsua da umeekin heriotzaren gaia jorratzea”

Amourrekin 2017ko Umeentzako Ikuskizun Onenaren Max Saria jaso eta gero, Izar antzezlanaren ekarriko digu bihar (17:00etan) Coliseora Jokin Oregik. Berbarik gabeko ikuskizuna prestatu du Soraluzeko antzerki-zuzendaria eta Iñaki Salvadorren musikak girotuko du lana, nahiz eta isiltasunak garrantzi handia daukan istorio honetan. Amour eta aurreko lanen bidea jarraitzen du Izarrek, eta kritikek maila gorenean jartzen dute antzezlan hau ere.

horrekin. Horrela ez ditugu umeak babesten, kontrara, ahuldu egiten ditugu. Gero, horrelakoak gertatzen direnean ez dira gai gauza horiek onartzeko eta esperientzia horietatik indartzeko.

- Ikuskizunaren estetika atentzioa deitzen du, maskarak erabiltzen dituzue. Zer bilatu duzue horren bitartez?

Nahiko arrazoi prosaikoak da. Gure antzezlanetan ez dugu berbarik egiten. Amour antzezlanean erabili genituen maskarak aurrenekoz, umeak zirelako protagonistak. Umekieretan sartzeko zehatzak gaudela pentsatu nuen eta, kolore gorriekin makilatu beharrean, maskarak erabili genituen. Maskaren erabilerak istorioak pentsatzeko beste modu bat eman dit. Bestetik, maskarek duten magia puntua deskubrimendu zoragarria izan da. Hasieran publikoari kostatu egiten zaio, baina ikuskizunean murgiltzen denean gozamenak da. Antzerkia berez da

artifiziosua eta ez dugu zertan hori ezkutatatu behar. Hitzik gabeko ikuskizuna izanik artifizialtasun hori areagotzen dugu, eta maskarak erabilia are gehiago. Ikusle moduan distantzia ematen du, nahiz eta emozioak zuzen zuzenean sartzen zaizkizun.

- Zuk zuzendutako azken ikuskizunek arrakasta handia izan dute. Listoia oso altu dagoela nabaritzen duzu?

Bai, presioa badago. Gure buruarekin zorrotzak gara. Jendeak asko espero duela pentsatzen dugu, begi asko ditugula begira, eta hankak dardarka jartzen zaizkigu. Gauza hunkigarriak egiten saiatu gara beti, epikoak eta inportanteak. Amourren ondoren zer?”, pentsatu genuen, eta gure bidetik jarraitzea erabaki genuen. Hainbat istorio baztertu eta Izarren istorioak harrapatu gintuen. Pozik gaude, Amourren maila lortzen dugula uste dudalako, eta harrera eta kritika onak jaso dituelako.

Vicente Iriondoren margo erakusketa Topalekuan

Gaur arratsaldean zabalduko dute Vicente Iriondo artista eibartarraren “In itinere” margo erakusketa, Topalekuan. Otsailaren 18ra arte egongo da ikustera joateko aukera, astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta asteburu eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



“Kantaurialdea” filmaren emanaldia antolatu dute ikasleentzat

Gazteak ingurumenaren inguruan kontzientzia har dezaten eta gure ingurua zaintzeak duen garrantziaz ohartarazteko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak lurralde osoko ikasleentzat hainbat jarduerak antolatu ditu, Ingurumen Hezkuntzaren Mundu Egunaren aitzakiarekin. Astelehenean 'Kantaurialdea' filma eskainiko dute Coliseoan, La Salle Aiztain, Probidentziako Andra Mari (Aldatze), eta Soraluze eta Mutrikuko ikasleentzat. Proiektioarekin batera, txikienez tailer bereziak egingo dira, hiri jasagarri bat diseinatu dezaten.



Garaje rock, surf eta soul vintagea The Dustaphonics-ekin domekan

Ohiko musika banda bat baino gehiago musikaren kontzeptu oso bat den The Dustaphonics taldeak domeka arratsaldean joko du Portalea musika kluban, arratsaldeko 19:30ean hasiko den kontzertuan. Ekimena Udalak iaz martxan ipini zuen musika zikloaren barruan dago, Gaztelupeko Hotsak-en proposamena jaso ondoren. Horrela, hilabetero kontzertu bat prestatzen dute Sorraluzeko zigilukoek, domeka arratsaldetan eskaintzen dena gehienetan. Otsailaren 4an etorriko den taldeak soto, garaje eta lokal okupatuetatik eta moto, kamioi eta surfetik sortutako doinueta era-mango du entzulea, beti ere imitazioetatik urrunduz: soinu berria sortuko du, indartsua eta nostalgiarik gabekoa, batez ere garaikidea.



Antzerki Jardunaldietarako sarreraren salmentak aurrera

Aurreko asteburuan Untzagako jubilatutuek egin zen Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurrealdea astelehenean amaitu zen, baina sarrerak alde aurretik erosteko aukera dago oraindik: Coliseo antzokian astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era egongo dira salgai eta interneten ere, www.kutxabank.es helbidean eros daitezke. Horrez gain, funtzio bakoitza hasi baino ordu erdi lehenago leihatilan ipiniko dituzte salgai eta funtzio bakoitzaren aurretik (ordubete lehenago), dagokion antzokiko leihatilan erosteko aukera ere egongo da.

Eguen Zuri argazki lehiaketa

Arrate Kultur Elkarteak Eguen Zuri argazki lehiaketa antolatu du aurten ere. Argazkietarako gaia Aratosteak dira (hau da, argazkiak ez dira derrigorrez Eibarko aratosteetakoak edo Eguen Zuri egunekoak izan behar). Lehiaketa irekia eta libre da, zaletu guztientzat. Parte hartzaile bakoitzak gehienez 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu, koloretan nahiz zuri beltzean. Lanak aurkezteko epea martxoaren 7ra artekoa da (19:00ak arte) eta lanak Arrate Kultur Elkartearen entregatu beharko dira. Hiru onenentzat saria banatuko dute (160, 100 eta 60 euro, hurrenez hurren).



Musika eskolako Santa Ageda kalejira

Astelehenean, 17:00etan hasiko da Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleen kalejira, Santa Ageda eguna ospatzeko. Ordubete inguru emango dute herriko kaleetan kantuan eta, ondoren, Portalera itzuliko dira, txokolatea jatera.

E-berba lehiaketa

Udalak, Udal Euskaltegiarekin eta AEK euskaltegiarekin lankidetzan, E-berba lehiaketa antolatu du. Proposamenak otsailaren 8tik 28ra jasoko dituzte eta parte hartzea irekia da. Parte hartzeko betebeharrak eta bestelako informazioa www.eibarko-euskara.eus gunean ipiniko dituzte eskuragarri. Informazio gehiagorako euskaltegia@eibar.eus, eibar@aek.eus edota euskara@eibar.eus helbidera idatzi.

FELISA ZUBIAURRE ARRIZABALAGA

-Ramon Agirregomezkortaren alarguna-

6. urteurrena (2012-I-29)

*"Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"*

ETXEKOAK





ANE URKIOLA ZENDOIA

Gozatu isiltasunaz!

Gozatu isiltasuna, zuritasuna, lasaitasuna, bakea, hartu arnasa aspaldiko partez:

Izan ere, psikopedagogian aditua den lagun batek esan zidan behin: sarritan isiltasuna dela iraultzarik bortitzena. Azkenaldian, halaxe izan daitekeenaren susmoa daukat. Hausnartu, ikusi eta, akaso, iritzi kritikotik, tentuz, hitz egin, iritzia eman, komunikatu, eragin. Baina saiatu isilik mantentzen. Isiltzea ere komunikatzea delako, kontzieteki bada, noski. Beraz, isildu ditzagun irratia, isildu telebista, isildu egunkaria, isildu hedabideak, isildu sareak, isildu antzokiak, isildu zine aretoak, isildu youtube eta vimeo, isildu bertso saioak, isildu nobelak, isildu kontzertu, vinilo eta spotify, isildu zirkoak, isildu komunikazioa eta kultura sustatzen diren plaza guztiak. Amatatu dana. Ta dena isilik, amatauta, ilun eta lasai dagoenean, batez ere: gozatu zuen isiltasunaz. Spoiler: Komunikatzaileok bizi dugun prekarietate egoera salatzeak eta adierazpen askatasun egarriaren aldeko zutabea da. (Gutziz ironikoa, bada ez bada ere).

Juanjo Olsagarreren "Poz aldrebesa" aztertuko dute martitzenean

Martitzenean, otsailaren 6an izango da Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa klubaren hurrengo saioa, 19:00etan Portaleko ikastaro gelan. Antxon Narbairak gidatuta, Juanjo Olsagarreren "Poz aldrebesa" liburuari mamia aterako diote irakurleek eta, gainera, lanaren egilea ere han izango denez, liburuaren inguruko iritzi eta inpresioak partekatzeko aukera izango dute. Juanjo Olsagarrere Arbizun jaio zen, 1963an. Donostian psikologia-ikasketak euskaraz egin zituen lehe-



nengo promozioiko ikaslea izan zen. Lizentziatu zenez geroztik euskara eta hizkuntza irakastea ditu ogibide, bigarren hezkuntzan. Euskaltegi eta barne-tegietan ere jardun zuen irakasle 1980ko hamarkadan. Horrekin batera hainbat hedabidetan kolaboratu izan du, hala nola, Egin, Egunkaria, Berria eta Deia egunkarietan, edo Ar-

gia astekarian. 2005etik sarean argitaratzen den Volgako Batelariak literatura aldizkariko partaide da eta gaurko literaturaren inguruko kritika eta artikulua plazaratu izan ditu bertan. "Poz aldrebesa" eleberria bere hirugarren nobela da eta liburuan bi gizonezkoren bizimodu gorabeheratsua kontatzen du Olsagarrek.

Papiroflexia tailerrean primeran ibili ziren guraso berbalagunak



Zapatu goizean

Gurasoak Berbetaneko partaideek, horietako asko seme-alabez lagunduta, gainera, ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokalean egin zen origami edo papiroflexia taileraz gozatzeko aukera izan zuten. Horrelako kontuetan aditua den Rafa Rodrigok origamiaren inguruko bitxikeriak azaldu zizkien eta, ondoren, entzundako guztia praktikara eramateko aukera izan zuten: papera erabilia bihotza, beltzarga, diru zorroa eta tximeleta egin zituzten. Ederto baten ibili ziren guraso zein umeak eta denak poz-pozik bueltatu ziren etxera, egindako artelanekin.



Jubilatuentzat informatika ikastaro bi

Biztu elkartearen eskutik hiru hilera honetan informatika ikastaro bi emango dituzte Untzagako jubilatutako Zibergelan: "Informatikara sarbidea" izenekoa ordenadorea sekula erabili ez dutenentzat pentsatuta dago, gutxieneko ezagutza izan dezaten. Otsailaren 12tik martxoaren 14ra bitartera emango da (20 ordu), astelehen eta eguaztenetan, 16:30etik 18:30era. Eta "Testu dokumentuak sortu eta diseinatu (Microsoft Word)" izenekoa, berriz,

aurretik informatikaz zerbait dakitenentzat izango da. Klaseak otsailaren 13tik martxoaren 15era bitartean izango dira (20 ordu), martitzen eta eguenetan, 11:00etatik 13:00era. Eibarko lau jubilatutako (Ipuru, Urki, Beheko Tokia eta Untzaga) bazkideek izango dute izena emateko aukera eta, horretarako, Untzagako Zibergelara (1. pisuan) joan behar harko da, astelehenetik barixakura, 17:00etatik 19:00etara.



eguraldia (EUSKALMET.NET)



“Linbotarren itzalak ate ostean” ikuskizuna ELGOIBARREN

Gaur iluntzean, 20:30ean, “Linbotarren itzalak ate ostean” ikuskizun musiko-literarioa eskainiko dute Asier Serranok, Antxon Sarasuak eta Mirya Fernandezek Elgoibarko Herriko Antzokian. Asier Serranoren “Ate osteko itzalak” eta “Linbotarrak” poema liburuetan oinarritutako emanaldia izango da eta Hamaika Literak antolatatu du. Hirurek hitzei ahotsa jarriko diete, gitarra eta teklatuak musikarekin lagunduta. Sarrera doan izango da.



Hartzaren Eguna ERMUAN

Otsailaren 9an, 18:30ean ospatuko dute Hartzaren Eguna Ermuan, plazan hasiko den kalejirarekin. Aurten ere Txindurri dantza taldeak hartuko du parte eta, horregatik, kalejirara Euskal Herriko Aratosteetako jantziekin joatera animatu nahi dute jendea. Horren harira eta Ermuko Gurasolagun egitasmoaren barruan, jantziak prestatzeko tailerra egingo da gaur, 17:30ean, Lobiano kultur gunean.

hildakoak

- Jose Maria Ulazia Artero. 73 urte. 2018-I-25.
- Alberto Zengotita Arriaga. 77 urte. 2018-I-26.
- Miren Itziar Arriola Idiakez. 84 urte. 2018-I-26.
- Antonia Molina Roses. 98 urte. 2018-I-26.
- Elisa Santiago Santiago. 80 urte. 2018-I-27.
- Bautista Davila Barquero. 75 urte. 2018-I-29.
- Pedro Irusta Ugarte. 71 urte. 2018-I-30.
- Isabel Larrea Garitano. 84 urte. 2018-I-30.
- Jose Ramon Azpiri Gabilondo. 76 urte. 2018-I-30.

jaiotakoak

- Abner Masariegos Rodriguez. 2017-XI-25.
- Danel Iglesias Prol. 2018-I-21.
- Bruno Urbieta Borinaga. 2018-I-22.
- Maher Sarrakh. 2018-I-26.
- Oier Ziarsolo Oiarbide. 2018-I-27.
- Israa Rahali Hanif. 2018-I-28.

farmaziak

- Barixakua 2**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 3**
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Domeka 4**
EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)
- Astelehena 5**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 6**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 7**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 8**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 9**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI - 2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

7	3	8	6	5	1	4	2	9
9	2	6	4	8	7	1	5	3
5	4	1	2	9	3	6	7	8
4	7	2	3	6	5	8	9	1
8	1	3	7	2	9	5	6	4
6	9	5	1	4	8	2	3	7
3	6	4	9	1	2	7	8	5
1	5	9	8	7	6	3	4	2
2	8	7	5	3	4	9	1	6

	5			8	4			9
2				7		8		
		8	2			3		4
	6							
5	3	9				6	8	7
							1	
9		5			6	1		
		3		4				6
6			8	5				7

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

Barixakua 2

URTEKO BATZARRA

17:30. Bazkideen batzarra. Untzagako jubilatutako etxean.

SAN BLAS LEHIAKETA

18:00. San Blas lehiaketa. Indianokua gaztelekuan.

UMEENDAKO JARDUERA

18:00. "Galtzontzillo Kapitaina" superheroiarene bisita (20:00ak arte). El Corte ingelsean (liburu sailean, 3. solairuan).

ILARGI FEST 2.0

18:30. "Tomar el escenario" dokumentalaren proiektzioa eta mahaingurua, Emagin-en eskutik. Gaztetxean.

ZINE-FORUMA

19:00. "De tu ventana a la mía" (Paula Ortiz). Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Pagatxak antolatuta. Saio irekia. Portalean.

Zapatua 3

KOKO-DANTZAK

08:30. Merkatu Plazan lehen agerraldia.

09:00/15:00. Koko-dantzak eta koko-eskea Mandiola eta Agina aldeko baserrietan.
19:00/21:00. Anbulatorio parean batu eta Zuloagak, T. Etxebarria, Untzaga, Calbeton eta Eibarko Bizikleta Plazan eskainiko dituzte koko-dantzak, Elgoibarko Mauxitxarekin.

SAN BLAS BEDEINKAPENAK

10:30. San Blas opilak, zintak etab. bedeinkatzeko meza. Urkiko elizan.

11:00. Azitaingo elizan, San Agustinen, Karmengo Amaren elizan (Karmelitak) eta San Pio X.a elizan.

12:00. Amañako elizan.

SAN BLAS LEHIAKETA

11:00/13:30. Opilen lehiaketa, Arrate KE-ren eskutik. Topalekuan.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

ANTZERKIA

17:00. "Izar" antzezlan, Marie de Jongh-en eskutik. Euskeraz. 5 euro. Coliseoan.

UMEENDAKO IPUINA

17:30. Antzeztutako ipuin-kontakizuna, Ana Apikaren eskutik. El Corte ingelsean (ekitaldi aretoan).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

ILARGI FEST 2.0

18:00. Maskara eta buru-beroki tailerra.
19:30. Batukada feminista.
22:00. Kontzertuak: La Basu, Drumkopters, La Furia, DJ Tarantistak Martxan.
05:00. Basoa buruan lehiaketa. Gaztetxean.

Domeka 4

SANTA AGEDA KALEJIRA

12:00/13:30. Santa Ageda ospatzeko kalejira, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin (lokaletik abiatuta).

SANTAESKEA

12:00. Eibarko Sarek antolatuta, Santaeskean irtengo dira, Legarreko frontoian batu eta jarraian.
15:00. Bazkaria, Txirixo elkartearen.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

SANTA AGEDA KALEJIRA

18:00/21:00. Sostoa abesbatzaren Santa Ageda kalejira. Ego Gaietik (El Corte Ingles paretik) abiatuta, Urkizuraino.

KONTZERTUA

19:30. "The Dustaphonics". 10 euro (7 euro, Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalean.


Astelehena 5

SANTA AGEDA

17:00. J.B. Gisasola Musika Eskolako ikasleen Santa Ageda kalejira. Amaieran txokolatea jango dute, Portalean.

EMAKUMEEN ISTORIOAK

18:30. "Beatriz Galindo. La latina", Pagatxak antolatuta. Sarrera librea. Portalean.



Martitzena 6

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19:00. Idazlearekin Harixa Emoten: Juanjo Olasagarre idazlearen "Poz aldrebesa". Portaleko ikastaro gelan.



Eguaztena 7

GURASOAK MARTXAN

18:30. "La comunicación en la adolescencia" hitzaldia, DBH-ko ikasleen gurasoentzat. Hizlaria: Garbiñe Arrizabalaga (Baikara). Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan

Eguena 8

ARATOSTEAK

15:30. Eskoletako taldeen kalejirak.

17:00. Kalejira Jainaga eta Narbaizarekin, Urkizutik Untzagara.

17:00. Dantzaldia, Lisker taldearen eskutik.

17:00/19:00. "Munduko Tribuak" kareta eta makillaje tailerrak, Astixaren eskutik. Untzagan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).

18:00. Dantza (maila altua).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:30. Odol-emaileentzat odola emateko saioa. Anbulatorioan.

Erakusketak

Otsailaren 4ra arte:

- "NOROSUR O (O)" MIGUEL ANGEL PEDROZA OCHOAREN ESKULTURAK. (Portalean)
- "SEÑALES DEL RUIDO" FRANCISCO ALONSO SEVILLAREN ARGAZKIAK. (Portalean)

Otsailaren 18ra arte:

- VICENTE IRIONDORREN MARGO ERAKUSKETA. (Topalekuan)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, **JULEN**, gaur 11 urte egiten dozuz-eta. Jarraitu etxeko alaitasuna izaten. Patxo potolua famelixaren partez.



Zorionak, **ANDER**, 10 urte!! Edarto ospatu zenduan eguna, ezta? Lagunak, kuadrilla, famelixia... Patxo asko etxeko guztien partez.



Zorionak, **ARRATE!**, 11 urte bete dozuz-eta. Maite zaittugu!!!



Zorionak, **OIHANA**, astelehenian 4 urte beteko dozuz-eta. Segi horren alai eta sorgin izaten. Musu pillo bat etxekuen partez.



Zorionak, **FRANCESCO**, gaur 3 urte egiten dozuzelako. Musu haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, **URKO**, martitzenian 7 urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **IZAR**, haraiñegun urtiak bete zenduaz-eta. 14 musu potolo etxekuen partez.



Zorionak, **KATRIN**, atzo 9 urte bete zenduazelako. Eta zorionak, **AITATXO**, datorren astian beteko dozuzelako. Laztan haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **IBAI** (haraiñegun 2 urte egin zenduaz-eta) eta **NORA** (bixar 12 egingo dozuz). Etxeko guztien partez.



Zorionak, **ELENE** / urtebetetzean / honezkeroko 2 urte / zu gure artean. / Jolas eta panpinak / beti jolasean / ospa dezagun denok / familia giroan.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
3an: 19,45, 22:30
4an: 20:00
5ean: 20:30

"C'est la vie!"

Zuzendaria: Eric Toledano



(2 ARETOAN)
3an: 19,45, 22:30
4an: 17:00, 20:00
5ean: 20:30

"Tres anuncios en las afueras"

Zuzendaria: Martin McDonagh



(ANTZOKIAN)
3an: 16:30⁽¹⁾, 19,30, 22:30
4an: 17:00^(1 aretoa), 20:00
5ean: 20:30

"El corredor del laberinto"

Zuzendaria: Wes Ball



(ANTZOKIAN)
3an: 17:00^(2 aretoa)
4an: 17:00^(EUSKERAZ)

"Harpetarra"

Zuzendaria: Nick Park



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Jardñeta kalean. 2 logela. Eguzkitsua, balkoiarekin. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. 99.000 euro. Tel. 659-088244.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 3 logela, 2 komun, garajea eta trasteroarekin. Jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 600-752732.
- Etxea salgai Ubitxan. 2 logela. Igogailua behetik (0 kota). Berriztuta eta bizitzera sartzeko moduan. Toki lasaia. 122.000 euro. Tel. 663-070757.

1.2. Errentan

- Pisua alogagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Jantzita. Ez da animaliarik onartzen. Tel. 653-747499.
- Hiru lagunentzako gela behar dute Eibarren errentan. Tel. 652-667788.
- Pisu baten bila nabil konpartitzeko, Eibarren edo inguruan. Neska euskalduna naiz eta Eibarren lan egiten dut. Tel. 606-385144 eta 646-418190.
- Pisua behar da Eibarren, konpartitzeko, edo gela errentan. Tel. 660-114801.
- Pisua, edo gela, hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 632-139806.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. 2/3 logelakoa. Tel. 632-337083.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Pabilioia salgai Elgetan (935 m.), instalazio guztiarekin: koadro elektrikoa, ur beroa, aire-sistema. 240.000 euro. Tel. 605-712852.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alogagai Untzaga inguruan. Tel. 652-775746.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-798284.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Baita gauz edo ospitalean ere. Tel. 603-514085.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 637-170781.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-277037.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-896989.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-123942.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-709366.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 677-324451.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-324473.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-201935.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-265747.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 667-060292.
- Gizon enkofradorea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 667-059774.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-064084.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 652-430110.
- Mutila eskaintzen da automozio alorrean edo beste edozein arlotan jarduteko. Tel. 652-430110.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-180539.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-061103.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-273486.
- Pintore txukuna eta arduratsua eskaintzen da. Tel. 642-275525. Asis.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako: nagusiak zaintzeko, garbiketarako... Tel. 665-257468.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-729445 eta 632-775652.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-482526.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-529252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-387305.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-245326.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta ilepaindegian lan egiteko. Tel. 632-839617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Asteburuetan eta gauz ospitalean zein etxean. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 671-763558.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara orokorrak egiteko goizez. Tel. 652-667788.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 632-678577.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653-412285.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-949742.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-891709.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-155993.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-686553.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta ostalaritzan lan egiteko. Tel. 631-128719.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 612-223075.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-338758.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzan, nagusiak zaintzen edo baserri lanetan jarduteko. Tel. 603-800105.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-727823.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak gauz zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Ikastaroa eginda. Tel. 647-314817.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak gauz zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Ikastaroa eginda. Tel. 692-424505.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Ikastaroa eginda. Tel. 658-273926.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta txakurrak paseatzeko. Tel. 632-067287.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 604-029356.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 689-571882.

4.2. Langile bila

- Pertsona behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Astelehenerik ostiralera, 07:00etatik 11:00etara. Izena emateko: umezainketa@gmail.com
- Kamarera/o euskalduna behar da. Tel. 634-277015.
- Laser depilazioan eta estetika aurreratuan espezializatutako enpresak estetikista behar du Eibarren zabalduko duen zentro-rako. Curriculumala bidali: rrrhh@tacto.es
- Emakumea behar da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Astelehenerik zapatuta. Tel. 677-553828.
- Estetikista behar da ilepaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-200700.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Magisteritzan ikasitako ingeleseko tituludun neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 663-654849.
- DBH eta Batxilergo klase partikularrak ematen ditut: Matematika, Fisika, Kimika, Ekonomia. Talde txikiak. Goiz eta arratsaldez. Tel. 685-739709.
- Euskarazko klaseak ematen dira. Azterketetarako prestaketa: EGA, Osakidetza eta HABEko perfilak... Ume eta helduentzako klaseak. Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Ohe artikulatua salgai. Motorizatua, hiru mugimenduekin. Gutxi erabilia. Tel. 635-746250. Ana.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

Logopedak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Difoniat
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
Logopedia
AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. COVA)
Móvil: 622-629-544
logopeda@berba.es

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

· Miopia ebakuntzak
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Psikoterapia

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR
RPS: 32/17

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maïalen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Gizareratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATZALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA
ANTSIETATEA
AUTOESTIMA
ARAZOAK**

☎ 943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO
DORRETTAN

centro médico eibar



EIBAR BHI 943 20 30 94
MOGEL ISASI DBH 1 eta 2



EIBAR BHI 943 70 22 89
ITZIO DBH 3 eta 4



EIBAR BHI 943 20 83 49
I. ZULOAGA DBH 3, 4 + Batxilergoak



AMAÑA 943 20 72 50



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 12 17 78

Aurrematrikulak

**HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN**

**Urtarrilaren 29tik
Otsailaren 9ra**

Euskal Eskola Publikoa

Handi-tzen handi-tzen

Mundua eskuratzeko

AURRE-MATRIKULA
Urtarrilaren 29tik
otsailaren 9ra

ONLINE AURREMATRIKULA
www.hezkuntza.net

Euskadi, auzolana

ELISKO JAULAKARITZA GOBIERNO VASCO

2018-2019 IKASTURTEA